

Lau etxarriar
gehiago
Urbasako sarioan



Sakanerria >> 9

Aitor Zubieta
bigarren txapelaren bila



Kirolak >> 11

Udal hauteskundeetara 34 zerrenda aurkeztu dira >> 6/8



Anaitasunarako deia

Kontseiluak bihar, larunbatean,
18:30ean, Iruñeko Anaitasuna
kiroldegian ekitaldia egingen du

Nafarroan euskaraz bizi nahi
dutenei Anaitasunara joateko
deia luzatu zaie

>> 5

ZORION agurrak

Argazkiak emateko lekuak: • Altsasu: Foru Plaza 23-1 • zorion@guaixe.net
• Ordainketa, Guaixeren bulegoan edo ondoko kontu zenbakian egin daiteke:
3035 0018 47 0181012564

ARGAZKIAK ASTEBETE LEHENAGO EKARRI, TOKIRIK GABE GELDITUKO ZARA BESTELA!

Eta orain... 4 euro argazkia eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsen opari-papera doan! Bazkideek 3,50 euro!



- Leihoen, ateen eta kontraleihoen fabrikazio eta muntaketa
- Balkoien eta terrazaren itxitura
- Kolore guztietako mallorkinak
- Konpromezurik gabeko aurrekontua

info@dekovennavarra.com • www.dekovennavarra.com

Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia • ALTSASU • Tel./Faxa: 948 468 360 • Telefono mugikorra: 690 641 860



apiribilak

24-30

Sakanan antolatzen diren ekitaldien berri emateko: gutunak@guaixe.net

Musika

La doggy party. Apirilaren 24an, ostiralean, 23:00etan Altsasuko Gernika tabernan.

Akordeoi kontzertua. Apirilaren 25ean, larunbatean, 19:00etan Olatzagutiko kultur etxean. **Pablo Sarasate Kontserbatorioko akordeoi ikasleak.**

Los del Rayo. Apirilaren 25ean, larunbatean, 23:00etan Etxarri Aranazko Derry tabernan.

Mantala no! Apirilaren 25ean, larunbatean, gauean Altsasuko gaztetxean.

Konboen kontzertua. Apirilaren 27an, astelehenean, 18:00etan Altsasuko lortia kultur gunean.

Antzerkia

Trabajos perdidos de amor. Apirilaren 24an, ostiralean, 19:00etan Altsasuko lortia kultur gunean. **Institutuko aSanak antzerki taldea.**

Del amor y otras cochinas. Apirilaren 24an, ostiralean, 22:30etan Olatzagutiko kultur etxean. **La Nave teatro.**

No. Apirilaren 25ean, larunbatean, 19:30etan eta 22:00etan Altsasuko lortia kultur gunean. **Iortia antzerki tailerra.**

Un viaje espacial con Sergio Salinas. Apirilaren 25ean, larunbatean, 22:30etan Altsasuko gaztetxean.

Aladin. Apirilaren 26an, domekan, 17:00etan Altsasuko lortia kultur gunean. **Gorakada konpainia.**

El atribulado voto de la "seña" María. Apirilaren 26an, igandean, 20:00etan Irurtzungo kultur etxean. **La Nave teatro.**

Zirkoa

Neskak gara, eta zer? Apirilaren 25ean, larunbatean, 18:30etan Etxarri

Aranazko kultur etxean. **Txantreako Zirkus Blai taldea.**

Ipuin kontalaria

Naturaz mintzo diren ipuinak. Apirilaren 24an, ostiralean, 19:00etan Altsasuko lortia kultur gunean. **Eñaut Gorbea.**

Ate magikoa. Apirilaren 28an, asteartean, 18:00etan Olatzagutiko liburategian. **Sara Pinto. Euskal mitologia, haurrendako.**

Liburuak igurtziz, istorioek hitz. Apirilaren 30ean, ostegunean, 17:00etan Etxarri Aranazko liburategian. 3 urtetik gora. **Zoila Berastegi.**

Zinema

Samba. Apirilaren 24an, ostiralean, 22:00etan eta apirilaren 26an, domekan, 20:10etan Altsasuko lortia kultur gunean.

Mortadelo y Filemon contra Jimmy el cachondo. Apirilaren 26an, domekan, 17:00etan Olatzagutiko kultur etxean.

Cenicenta. Apirilaren 30an, ostegunean, 19:00etan Altsasuko lortia kultur gunean.

Ikuslearen eguna, 3 euro.



Mendi irteerak

Uharte-Ekai. Apirilaren 26an, igandean, goizean. **Iratxo mendi taldea.**

Altsasuko perimetroa. Apirilaren 26an, domekan, goizean. Altsasuko Mendigoizaleak.

Ikasleak antzezle



Gaur, 19:00etan, Altsasuko lortia kultur gunean. Aralarko Mikel Donea institutuko aSanak antzerki taldeak *Trabajos perdidos de amor* antzezlan eskainiko du gaur. William Shakespearen lanaren moldaketa da antzezle gazteek jokatu dutena. Sarrera doakoa da.

Bizikleta irteerak

Altsasu-Lazkao-Altsasu. Apirilaren 25ean, larunbatean, 9:30etan Altsasuko kultur gune paretik. 85 km. **Zikloturista taldea.**

Lareoko urtegia. Apirilaren 25ean, domekan, 9:00eta Altsasuko Zumalakarregi plazatik. 55 km. **Barranka txirindulari taldeko mendi bizikleta taldea.**

Erakusketak

Igarotako udazkenak. Apirilaren 30era arte, astegunetan 18:30etik 21:00etara eta domeketan 19:00etatik 21:00etara Altsasuko lortia kultur gunean. **Kiki Asensio eta Adela Sanchez.**

Hitzaldia

Bizi eredu berriak, nazio eraikuntza eta alternatibak. Apirilaren 30ean, ostegunean, 19:00etan Altsasuko lortia kultur gunean. **Hizlaria Oskar Matute.**

Literatura

Album ilustratua. Apirilaren 24an, ostiralean, 18:00etatik 20:00etara Ziordiko liburategian. **Aurretik izena eman.**

La cena (Herman Koch). Apirilaren 24an, ostiralean, 21:00etan Olatzagutiko liburategian. **Tertulia.**

Behi euskaldun baten memoriak. Apirilaren 30ean, ostegunean, 19:00etan Etxarri Aranazko liburategian. **Irakurle taldea.**

Bestelakoak

Komiki bihurtuz. Apirilaren 25, larunbatean, 17:00etatik aurrera Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean.

Egun anti-desarrollista. Apirilaren 25ean, larunbatean 14:30etik aurrera Altsasuko gaztetxean.

Bigarren eskuko azoka. Apirilaren 26an, igandean, 10:00etatik 14:00etara Irurtzungo plazan.

Kontserbatorioko akordeoi ikasleen emanaldia



Larunbatean, 19:00etan, Olatzagutiko kultur etxean.

Pablo Sarasate Kontserbatorioko akordeoiko lau ikasle izanen dira kontzertua eskainiko dutenak. Haien artean daude Leire Aiestaran Lasa (seigarren maila) eta ama olaztiarra duen Nahia Elorza Macias (bigarren maila). Haiekin batera Ainhoa Quintana Beraiz (lehen maila) eta Raquel Ortega Bello (bosgarren maila) ariko dira. Guztiak ere, bakarlarri gisa. +www.guaixex.es

Mus txapelketa. Apirilaren 26an, igandean, 17:00etatik aurrera Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean.

Deialdiak

Euskal Presoak Euskal Herrira! Apirilaren 24an, ostiralean, 20:00etan Lakuntzako, Arbizuko eta Etxarri Aranazko plazetan, elkarretaratzeak.

Joste eguna. Apirilaren 25ean, larunbatean, 12:30etan Altsasuko Foru plazan eta 19:00etan Bakaikun. **Gure Esku Dago.**

Euskal Presoak Euskal Herrira! Apirilaren 26an, domekan, 20:00etan Altsasuko plazan, elkarretaratzea.

Ostiralero **SAIOA** 9:30etik 10:30era
Errepikapenak 14:00etan eta 19:00etan.

beleixe ^{107.3 FM} *online*
www.guaixe.eus

Piztu irratia!

ASTEKO ERREPASOA:
albisteak, kirolak,
Etxarriko Sare, Zubieta...

ASTEBURUKO AGENDA

Esataria: *Eneida*

Aralar Txirrindulari Taldea 2015: familia hazten



37 txirrindulari trebatuko dira Aralarren. Sakana, Larraun, Areso eta Leitzaiko 37 neska-mutiko trebatuko dira 2015ean klubean. "Kopuruari eustez gain, zer bait hazi gara. Egungo garaiek eta txirrindularitza bezalako kirol batetaz ari garela kontuan izanda, zenbaki oso polifa" adierazi zuen Javier Ebarri presidentek. Aralar familia handia dela berretsi zuen Ebarriek. Bestalde, txirrindulariei zorte onena opa zien. "Kirol honetan lan handia egin behar da eta asko surritu. Ametsak lortu nahi badituzue... bideo gurbago eta errepede gehiago" adierazi zuen. "Ebe honetan ez ditugu emaitzak exijitzen. Bakoitzak ahal duena egin dezala, garrantzitsuena txirrindularitza sustatzea dela" azpimarratu zuen.

Javier Ebarri presidentek Alfonso Tadeo, Ana Lopez, Patxi Irastorza, Javier Huarte, Jon Gil, Juanjo Erdozia, Jose Cerviño, Pedro Galarza eta Iñaki Mauléon entrenatzaileen lana eskertu zuen. Baita gurasoen inplikazioa ere. Aralar taldeko babesie guztiendiako esker oneko hitzak izan zituen ere.



ESKOLAK (26). PROMESAK: Ibai Arana, Luka Martinez, Oier Irujo eta Aiert Balda. **HASIBERRIAK:** Bakame Arregi, Joritz Arratibel, Alain Rosado, Manex Zufiaurre, Aimar Pueyo, Xabier Yeregi eta Aritz Oiarbide. **KIMUAK:** Ohian Arana, Mikel Yeregi, Aimar Tadeo eta Jon Erdozia. **1. URTEKO HAURRAK:** Igor Arrieta, Aitor Alberdi, Mikel Martinez, Sergio Romero, Maria Beraza eta Asier Irujo. **2. URTEKO HAURRAK:** Urko Gorriti, Joseba Huarte, Joana Irastorza, Jon Gil eta Leire Maiza. **BABESLEAK:** Intersport Irabia. **ENTRENATZAILAEK:** Alfonso Tadeo, Ana Lopez eta Patxi Irastorza.



KADETEAK (7). Iker Cerviño, Beñat Etxezarreta, Imanol Galarza, Unai Lizarraga, Xabier Mauléon, Javier Mifxaus eta Ander Rosado. **Babesleak:** Intersport Irabia. **Entrenatzaileak:** Jose Cerviño eta Pedro Galarza.



JUNIORRAK (4). Izai Mauléon, Nestor Baroja, Patxi Lopez eta Gorka Arbizu. **Babesleak:** Intersport Irabia. **Entrenatzaileak:** Jose Cerviño eta Iñaki Mauléon.

BABESLEAK





Zoila Berastegi

astekoa

Ez ahaztu: oroitu: **berriz bihotzetik pasa**

Hasieran agian ezinegonaren. Edo galdera. Edo amorrua. Edo nekea. Edo tristura. Ondoren beharbadanahia, gogo, beharra. Gero hitza, jatorria, esanahia, erabilera, tartean orri txuriak eta zirriborroak han-hemenka. Hiztegiaren ustiaketa, bisturia eskutan. Jarraian oroitzapenak, zigarroak, kontakizunak, bizipenak,

ametsak, kafeak. Jostunen lana segidan. Nola josten dira hitzak? Nola sortzen imajinak? Hariari tiraka eta tiraka, mezua. Hitzek elkarren ondoan sortzen dutena hitz bakoitzaren esanahien batura baino gehiago delako. Esan nahi duguna esateko hitzik ez dagoenean, hizkuntzaren hutsu-nebortitzekin aurkitzean, badela-

ko irtenbiderik. Hori irakatsi dit. Agian esan beharrekoa hitz gutxitan esaten zekiela. Agian mendeetan isilean egon zenari ahotsa jarri ziolako. Agian punteria onekoak zelako eta esaten zutenak, gezi bat legez, bihotzera iristeko abilezia zuelako. Agian politikoa bezain poetikoa zelako. Agian amnesia kolektiboaren kon-

tra borroka etengabean arituzelako. Agian gizakion aurpegi iluna gozoena bezain bestetan azalazten zuelako. Agian garaiak, pertsonak eta lekuak "honeratzen", "oraineratzen" zekiela. Agian Historia istorioetan kontatzeko gaitasuna zuelako.

1400 karaktere ezer gutxi da, badakit. Baina badu bere balioa,

niretako bederen, eta horregatik hari eskaini, oparitu, eman, zuzendu, bidali nahi dizkiot karaktere hauetako bakoitza. Niretako opari bat izan direlako esku artean izan ditudan bere hitzetariko bakoitza. Horregatik, eta ziurrenik bera baino handiagoa zen obra utzi digulako... mila esker Galeano.

barrutik kanpora

aNAHitasunan, protagonista

Euskaraz bizi nahi dugun herri-tarrokez dugu horretarako aukera izaten nahi dugun guztietan. Nire eguneroko bizitza baldintzatzen duten oztopoak aurkitzen ditut maiz:

Etxarri Aranzako Emakume-ari Laguntzeko Zentrora deitu nuen aurrekoan; nik euskaraz egin eta gaztelaniaz egiteko eska-

tu zidaten.

Nafarroako Zerga Ogasuneko bulegoetara joan nintzenean, ez sarrerako informazio-mahaiko langilearekin, ez ondoren txanda hartutakoan egokitu zitzaidan langilearekin, ezin izan nuen euskaraz aritu. Euskaraz idatzi nuen erreklamazioari erantzunez, gaztelaniaz jaso dut jakina-

razpena.

Erosketak egiten ditudan supermerkatuan produktuen gaineko informazioa eta prezioak gaztelania hutsez ageri dira eta postontzian utzi zidaten Decathlonen publizitatean ez dago euskararen arrastorik ere.

Zinemara joan nintzenean eman zidaten txartelaren atzealdean

ageri den informazio guztia gaztelania hutsean zegoen. Aurreko egunean bazkaldu nuen jatetxean, berriz, menua zen gaztelania hutsean zegoena.

Nire telefono konpainiarekin euskaraz aritzeko modurik ez dago eta, Gasteizera joateko aterra nuen bidaia-txartela, gaztelania hutsean eman zidan RENFEk...

Seguru irakurtzen ari zaren horrek, zerrenda luzatzeko moduko bizipenak dituzula.

Testuinguru honetan, zailtasunen gainetik, irtenbideak bilatzen

saiatzen naiz. Lorea Agirrek zioen moduan, euskara, erabiltzen dudanean egiten dudalako nire. Euskaraz bizitzeko nahiak dimentsio pertsonala eta kolektiboa duelako, eskubidea dugulako, nire/gure nahia errealitate bihurtzeko urratsak eman daitezkeen eskatzera, ilusioari bultzada eman eta konpartitzera joango naiz aNAHitasunara. Nire bizitzaren protagonista izan nahi dudalako.

Hizkuntza
Eskubideen Behatokia

gutunak

Javier Paniagua, Sunsendegui enpresatik kaleratu ondoren hildako langilearen senideak, Miren Peñaren heriotzaren aurrean

Juan Manuel, Arantza, Ramon, Araceli eta Karmen Paniagua, Javierren anai-arrebak

2013. urtean gure anaia Javier Paniagua sistemak erail zuen, duela gutxi Miren Peñarekin gertatu zen bezala. Javier Paniagualehenengo aldiz 2011n izan zen kaleratua, EEE urtebete igaro ondoren enpresan sartzeko aukerarekin.

Urtebete beranduago Javier Paniagua berriro sartu zen enpresan, langabezia laguntzaren zati handi bat kontsumituta. 2013ko

apirilean kaleratu zuten Javier beste lankide batzuekin batera. Orduan ere, kaleratzean oinarri ideologikoa salatu genuen, kaleratuen %90 inguru UGT sindikatuarekin zerikusirik ez zuten. Komitearen gehiengoak sinatutako akordioak jasotzen zuen urte baterako enpresatik kaleratuak izan zirenak azkenak izanen zirela beste kaleratuak izaten.

Sodenak, SUNSUNDEGUI enpresako kudeatzaile izendatutako Jose Ignacio Murillo eta Lorenzo Rios MCA-UGT sindikatu arduraduna izan ziren langileak mehatxatu eta beldurtu zituztenak enpresaren itxieraren mamua erabiliz. Gogoratu dezagun enpresa hau SODENAK errekatatu zuela 36 milioi ingu-

ruko diru publikoa erabiliz eta egungo zuzendaritzak akzioen %51 lortu zuela. Langileak aldiz akzioen %49 arekin geratu ziren.

Kaleratzeak izan eta denbora gutxira, enpresan kontratazio berriak egiten hasi ziren UGTko jendearekin. Kontratazio berriak baldintza kaxkarragoetan ez ezik, ordu estrak ohikoak bilakatu dira enpresan. Kaleratzeak iruzur bat izan ziren.

Gure anaiaren kaleratzeetik bi urte pasako diren honetan oso gogorra egin zaigu Miren Peñaren heriotzaren berri izateak. Beraz, lerro hauetatik besarkada bat helarazi nahi diogu Miren Peñaren senitarteko eta lagunei. Javier eta Miren Gogoan.

Osorik: www.guaixe.net-en.

objektibo tik



Udaberriko ziza:

Sasi artean bada ere, batzuk hartu dituzte Udaberriko zizak. Bestelako bat, koloretsua opatu zuten asteartean Urdiaingo futbol zelaietan. Ondoko frantsesa edo bertako larresusoa? Hartu zutenek jakinen dute.

objektibo tik: gutunak@guaixe.net

Guaixe  

ERREDAKZIO BURUA: Alfredo Alvaro Igoa • guaixe@guaixe.net
ERREDAKZIOA: Maider Betelu Ganboa • kirolak@guaixe.net
MAKETATZAILEA: Ainhoa Etxeberria Pikabea
PUBLIZITATEA: Maria Saez de Albeniz • publizitatea@guaixe.net
eta Eneida Carreño Mundiñano • publi@guaixe.net
ERREDAKZIO LAGUNTZAILEAK: Maialen Huarte Arano, Eñaut

Agirrebengoa Apaolaza eta Larraitx Amadoz Lazkano
ZUZENTZAILEA: Garazi Garzia Mauleon
ARGITARATZAILEA: Bierrik Fundazioa. Foru plaza 23-1. 31800 Altsasu • 948 564 275 • 948 562 107 • 618 882 675
KOORDINATZAILEA: Goizeder Anton Iturralde • bierrik@guaixe.net
DISEINU ZERBITZUA: Guaixe Komunikazioa • Amaia Amilibia Salgado • argi@guaixe.net
ADMINISTRAZIOA: Gixane Andueza Goikoetxea • zorion@guaixe.net

LEGE GORDAILUA: NA-633/1995
TIRADA: 3.200

LAGUNTZAILEAK:

BAZKIDEAK 

Mank
s a k a n a

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikako Salburuordetza

LAN UZTEA PORLANDEGIAN: Lan Osasunaren Egunaren bezperan, astelehenean, porlandegiko langileek ordu bateko lan uztea egingen dute, 14:00etatik 15:00eta-

ra. Zenbait langilek lan istripuak izan dituzte eta enpresak isuna jarri dietela salatuko dute ELAK eta CCOOK deituta.

sakanerria >>

SAKANA

Anaitasunarako deia

Kontseiluko kideek larunbateko ekitaldian parte hartzeko deia luzatu diete euskaraz bizi nahi duten herritarrei. Larunbatean, 18:30ean, Iruñeko Anaitasuna kiroldegian

Euskaraz bizitzeko nahia. Hori da larunbatean Anaitasuna kiroldegian bilduko direnek elkar lotuko dituen. Nahi horri errealitate bihurtzeko egunero lan egiten dute euskalgintzako kideek eta makina bat pertsonen ere. Kontseiluko idazkari nagusi Paul Bilbaok adierazi duenez, "guztiok batera urte luzez egin dugun lanak ekarri gaitu hona. Euskararen normalizazioaren motorra izan dira eta oztopoen aurrean haiek eman digute guri aurrera egiteko indarra, adorea eta kemena".

Bilbaok gaineratu duenez, "biharko ekitaldiaren helburuetako bateuskaraz bizi nahi duten pertsona guztiei, euskararen normalizazio prozesuan protagonista nagusiak izan direla esatea da. Hori eskertu nahi dugu. Eta aurrerantzean ere hala izan dadin gonbidatu nahi ditugu". Kontseiluko buruak nabarmendu duenez, Anaitasunatik "Nafarroan behar dugun aldaketa bultzatzeko ado-

Paul Bilbao:
«Lanean jarraitzeko indar hartze ariketa izango da Anaitasunakoa»

rea eta kemena berrindartuta lanean jarraitzeko konpromisoa hartuko dugu".

Aldaketaz

Kontseiluko idazkari nagusiak argi adierazi nahi du: "Nafarroan eman behar den aldaketa hizkuntza-politikak iraultzetik etorriko da. Hizkuntza-politikan erroko aldaketarik gabe ez da aldaketarik egonen". Larunbatean egin beharreko bidea zehaztuko du Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluko Nafarroako Mahaiak.

Hizkuntza normalizazioak ikuspegi politikoa eta soziala dituela nabarmendu du Bilbaok. Horretarako lau zutabe aipatu ditu: cor-



Iragarri dutenez, ekitaldi parte-hartzailea, bisuala, artistikoa eta metaforikoa izanen da Anaitasunaren egingen dena.

pus juridikoa, plangintzak, baliabideak eta herri gogoia. "Azken hori ziurtatuta dago. Euskaraz bizi nahi duten herritarrak lanearako prest ditugu eta euskalgintzak hori aktibatuz lanean jarraitzeko konpromisoa hartu du". Gainontzeko hirua, arlo politikari dagozkio eta horiek, ardura politikoa dituzten horiek bete beharrekoak direla nabarmendu du Bilbaok. "Guztiok ditugu ardu-

rak prozesu honetan eta bakoitzak bete behar du dagokion mailan".

Ekitaldia

Biharko ekitaldia "berezia" izanen dela aurreratu du Bilbaok. "Gure burmuinean iltzatuta gertatzen diren gertakari horietako bat izanen dela pentsatzen dugu. Guztiok izango gara protagonista, normalizazio prozesuan izango garen bezalaxe. Lanean jarrai-

Bat egin dute

AEK, Berria, EHE, EKE, Elkar, Emun, IKA, NIE, UEMA, Sortzen, Topagunea, Tokikom, Nafarroako Bertsozale Elkarte, UEU eta lan, kultura eta kirol arloko makina bat eragilek eta norbanakok.

tzeko energia berrituak emango dizkigunak".

>> Etxeberri

Frontoia, mustutzeko

Pinturako eta bestelako azken lan txikien faltan, maiatzean edo garagarzaroen mustuko dute etxeberriarrek frontoi berritua. Pilotalekua estaltzeko teilatua, porlanezko zoru berria eta atzeko pareta jarri dituzte eta begiratokia egin dute. Lanek 90.000 euroko aurrekontua izan dute. Haietatik 28.000 Arakilgo udalak jarri ditu. Gainontzekoa, berriz, Etxeberriko Kontzejuaren bizkar gelditu da. Horretarako kontzejuak bere bi pisuetako bat saldu du. Horrela,



Frontoia estaltzeko lanak bukatu dira

aurrekontuaren heren bat estali du kontzejuak eta beste herena bere diruzaintzako soberakinarekin ordainduko du.

>> Urdiain

Zerbitzuei eusteko aurrekontua

Urdiaingo Udalak aurtengo 430.000 euroko aurrekontua onartu du. Sebastian Aristizabal alkateak esan digunez, udalak eskaintzen dituen zerbitzuei eusteko da aurtengo aurrekontua. Ez da inolako inbertsiorik aurreikusitua. Hori bai, udan egindako inbertsioa ekarri du gogora, Urdiaingo argiteria publikoa berritzeko 108.000 euroko inbertsioa egin baitzuen.

Argindar kontsumoa murrizteko neurria izan zen. Aristizabalak azaldu digunez, "wattio



Udaz geroztik farola berriak dituzte Urdiainen.

gutxiagorekin argi bera ematen dute bonbillek. Errendimendu handiagoa ateratzen diegu". Bestalde, kontsumoa erregulatzeko

aukera ere badu udalak. Hala, gaueko ordu txikituan argi intentsitatea jaitsi eta horrela gutxiago kontsumitzen du.

Amaya
Okindegi-gozotegia

ARAIA 945 314 572

ALTSASU

- Lantegia: Texeria aldapa 948 562 205
- Zumalakarregi plaza 948 468 026
- Amaia supermerkatua
- Otadiako Kristo Deuna plaza, 19. 948 562 185
- Gipuzkoa 4
- San Juan kalea 50. 948 564 053
- Netto 659 288 401

okindegia - gozotegia - kafetegia - ogia - pastelak - kafea - txokolatea - pastak - bonboiak...



ALTSASU



OLAZTI

948 468 755



ETXARRI

948 461 660

Udal hauteskundeak

Udal hauteskundeetara 34 zerrenda aurkeztu dira

Udalak maiatzaren 24an berri-ko dira. Alderdiak herrietako hauteskunde lehian parte hartuko duten behin-behineko zerrendak aurkeztu



dituzte dagoeneko. 15 udal berri-ko 34 zerrenda aurkeztu dira, duela lau urte baino bat gehiago.

Genero ikuspegia

Udal hauteskundeetara aurkeztutako zerrendetan 358 pertsona aurkeztu dira, aurrekoetan baino 16 gehiago. Haietatik gizonenak 223 (% 62,29; aurrekoan baino 5 gehiago) dira eta emakumeenak 135 (% 37,71;

aurrekoan baino 11 gehiago). Gero aldetik duela lau urteko portzentajeak mantentzen dira.

Bestalde, 34 zerrendetatik 25en alkate-gaia gizonenak da (% 73,53; duela lau urte baino 2 gehiago). Maiatzerako 9 alkate-gai emakumezko aurkeztuko dira (26,47; aurrekoan baino bat gutxiago).

Udalak

Ibarreko zazpi herrietan zerrenda bakarra aurkeztu da udal hauteskundeetan. Hala, Lakuntzak, Arbizuk, Bakaikuk, Iturmendik eta Urdiainek EH Bilduko alkateak izanen dituzte. Bestalde, Irañeta eta Arruazun hautagaitza independenteetako kide bat izanen da alkatea. Bi herriek 101 eta 250 biztanle artean dituzten zerrendako bost pertsonari eman diezaiekete botoa alkatea aukeratzeko.

Gainontzeko udaletan ordezkariak lortzeko lehia egonen da. Hautagaitza gehien dituen herria

Alderdiak herriak	Kopurua	Herria
Bildu	12	Arakil, Irurtzun, Uharteko Arakil, Lakuntza, Arbizu, Etxarri Aranatz, Bakaiku, Iturmendi, Urdiain, Altsasu, Olatzagutia eta Ziordia.
Independenteak	6	Arakil, Irurtzun, Irañeta, Arruazu eta Ergoiena (2).
PP	5	Irurtzun, Uharteko Arakil, Etxarri Aranatz, Altsasu eta Olatzagutia.
UPN	4	Irurtzun, Uharteko Arakil, Altsasu eta Olatzagutia.
PSN	3	Irurtzun, Altsasu eta Olatzagutia.
Geroa Bai	2	Altsasu eta Ziordia.
I-E	1	Altsasu.
Ahal Dugu-tik eratorriak	1	Altsasu

Altsasu da, zazpi (bat gehiago). Irurtzunen bost zerrenda neurtuko dira (bat gehiago). Olatzagutian lau izanen dira (bat gehiago). Uharteko Arakilen hiru (bat gehiago). Bina zerrenda izanen dira Arakilen, Ergoienan, Etxarri Aranatz (bat gutxiago) eta Ziordian. Duela lau urte 14 udal maiatzean berriuziren, Iturmendikoa udazkeneko deialdian berriuz baitzen.

Bitxikeriak

Legegintzaldi honetan alkate izan direnetatik lau aurkeztu dira alka-

te-gai: Ruben Goñi Urroz (Arakil), Pello Betelu Ganboa (Arruazu), Victoriano Gabirondo Lanz (Iturmendi) eta Gurutze Rodriguez Armendariz (Olatzagutia).

Bestalde, UPNren bi zerrendetan erregionalisten hainbat izen ezagun agertzen dira. Altsasun Alberto Catalan Higuera, Ignacio Igea Sainz eta Carlos Casimiro Salvador Armendariz. Olatzagutian, berriz, Luis Zarraluki Ortigosa, Maria Kutz Peironcelly, Carlos Garcia Adanero eta Juan Luis Sanchez de Muniaín Lacasia.

ZERRENDAK

Arakil

Arakilgo Independenteak

1. Ruben Goñi Urroz
2. Maria Paz Gonzalez Sagües
3. Miguel Angel Laplana Alba
4. Francisco Javier Uharteko Garro
5. Gregorio Santesteban Nuñez
6. Edurne Zuriñe Ormaetxea Padilla
7. Alicia Izco Aldaba

Ordezkoak

1. Laura Ruiz de Erentxun Ramirez
2. Marta Fuertes Aienza
3. Javier Ignacio Correa Yalar
4. Juan Pablo Latiegi Martinikorena
5. Jose Arraiza Uharteko

EH Bildu

1. Maria Del Mar Esparza Luri
2. Jose Javier Beroiz Plano
3. Juan Jose Madariaga Orbea
4. Peio Mari Astiz Auzmendi
5. Nekane Uharteko Urriza
6. Leire Gonzalez Balenziaga
7. Gerardo Brun Irisarri

Ordezkoak

1. Rafael Subiza Osinalde

Irurtzun

EH Bildu

1. Aitor Larraza Carrera
2. Eduardo Murugarren Frances
3. Irantzu Osinaga Galarza
4. Antonio Nicolas Ollakarizketa Elizondo
5. Agurtzane Garijo Peralta
6. Fernando Carrion Galarza
7. Maria Josefa Osinaga Labaien

8. Unai Razkin Iriarte
9. Naiara Garcia Royo
10. Francisco Javier Iriarte Olló
11. Maddi Urria Albizu

Ordezkoak

1. Felix Javier Mendia Villanueva
2. Ana Maria Santander Lizaso
3. Patxi Flores Lazkoz

Irurtzun Independenteak

1. Arantxa Berasategi Zabalo
2. Domingo Goñi Sarasola
3. Jose Javier Cano Clemente
4. Vicente Oiarzun Aginaga
5. Itziar Pellicer Satrustegi
6. Manolo Senra Iglesias
7. Jose Antonio Arregi Sarasa
8. Edurne Nagore Arbizu
9. Maria Eugenia Barroso Carrillo
10. Jose Carlos Osinaga Lacunza
11. Samir Dafoufi Ahdidouch

Ordezkoak

1. Antonio Vilches Corral
2. Luis Anton Rodriguez

Partido Popular

1. Juan Carlos Martin Fernandez
2. Maria Del Carmen Cortes Liebana
3. Antonio Grande Chica
4. Elena Tejerina Picado
5. Antonio Jesus Arias Navas
6. Maria Luisa Amigo Lorenzo
7. Luz Maria Acevedo Perez
8. Enrique Barras Victori
9. Purificacion Pizarro Cabrera
10. Carlos Caracuel Montilla
11. Rogelio Vilches Jordan

Partido Socialista de Navarra

1. Juan Carlos Espada Garcia
2. F. J. Garate Agüeros (Ind.)
3. Carolina Roza Llera (Ind.)

4. Andoni Garcia Izagirre (Ind.)
5. Pablo Chivite Navascues
6. María Rouco Loureiro
7. Adolfo Navascues Navascues
8. María Susana Arasti Pérez
9. Juan Jose Sesma Fernandez
10. Patrocinio Perez Ruiz
11. Maria Carmen Lourdes Santos Muñoz

Union Del Pueblo Navarro

1. Luis Enrique De La Calle Moreno
2. Miguel Angel Martinez Garcia
3. Jose Miguel Cruz Aranda
4. Natividad Lazkoz Artanga
5. Maria Nieves Uterga Juango
6. Santos Carballo Sanz
7. Maria Pascual Mutiloa
8. Francisco Garcia Rodriguez
9. Jose Antonio Martinez Jaunsaras
10. Manuel Mariñelarena Lozano
11. Juana Maria Martinez Jaunsaras

Irañeta

Aritzmakur

1. Juan Angel Beraza Gastesi
2. Jose Manuel Lizarraga Mendiñeta
3. Migel Alfonso Itoiz Irigarai
4. Itziar Armendariz Juango
5. Aitor Garmendia Arbilla

Uharteko Arakil

EH Bildu

1. Ainara Aiestaran Ijurko
2. Miren Rabaz Irañeta

3. Juana Maria Sainz Betelu
4. Mikel Razkin Barandain
5. Javier Rodriguez Astiz
6. Itziar Retegi Martiarena
7. Julen Bergara Baraibar

Ordezkoak

1. Jose Domingo Uharteko Baleztena
2. Gaizka Uharteko Balda
3. Hasier Beltza Arza
4. Pedro Garces Otazu
5. Ioana Ijurko Risco
6. Julen Martiarena Arza

Partido Popular

1. Maria Valez Amo
2. Alvaro Javier Sobejano de Pablo
3. Maria Del Carmen Ortilles Prats
4. Iñaki Igaralde Villanueva
5. Gabriela Romero Martinez
6. Emilio Martinez Zarranz
7. Gabriel Mato Adrover

Union Pueblo Navarro

1. Jorge Martin Perez Vizcaino
2. Francisco Jose Fernandez Garcia
3. Juan Manuel Rubio Genbe
4. Javier Lesaka Eskiroz
5. Javier Arizkuren Pola
6. Georgi Asenov Erdelski
7. Teresa Rouzaut Subira

Arruazu

Batzalarre

1. Pedro Maria Betelu Ganboa
2. Aritz Satrustegi Ganboa
3. Ainara Martin Busto
4. Mikel Satrustegi Untzilla
5. Patxi Xabier Satrustegi Ganboa

Ordezkoak

1. Mikel Aizpun Andueza

Lakuntza

EH Bildu

1. Patxi Xabier Razkin Sagastibeltza
2. Juan Isidro Gaya Andueza
3. Aitor Garcia Monfort
4. Rafael Etxeberria Pellejero
5. Ruben Rodriguez Romero
6. Francisco Javier Ignacio Ardaiz Esteban
7. Izaskun Igeltz Lazkano
8. Pedro Maria Ruiz Bordegarai
9. Jesus Migel Imaz Prim

Arbizu

EH Bildu

1. Maria Carmen Marañon Chasco
2. Francisco Javier Razkin Flores
3. Aizaga Zeberio Petriati
4. Migel Angel Urkia Arretxe
5. Monica Etxebarria Ariznabarreta
6. Jesus Maria Mendiñeta Urdanoz
7. Miren Mendiñeta Lakuntza
8. Jesus Mendiñeta Razkin
9. Iraitz Goñi Diaz

Ordezkoak

1. Katrin Ginea Mundiñano
2. Mikel Berastegi Unzilla
3. Alberto Izagirre Izagirre

Udal hauteskundeak

Ergoiena

Askogain

1. Xabier Senar Veiga
2. Aitziber Andueza Larraza
3. Florencio Etxarri Luis
4. Gorka Etxarri Senar
5. Ander Beltza Goldaracena
6. Idoia Gurutzarri Senar
7. Miren Iosune Andueza Osteriz

Batzaramendi

1. Joseba Imaz Berastegi
2. Josune Lizarraga Razkin
3. Irantzu Mozo Berastegi
4. Mikel Lizarraga Pueio
5. Javier Mozo Lizarraga
6. Iñaki Gaulabur Razkin
7. Amalia Lizarraga Munarriz

Ordezkoak

1. Aitor Mozo Lizarraga
2. Ruben Mozo Lizarraga

Etxarri Aranatz

EH Bildu

1. Eneka Maiz Ulyar
 2. Aitor Karasatorre Mugurutza
 3. Silvia Marañon Chasco
 4. Jose Aldasoro Jauregi
 5. Begoña Goikoetxea Zabaleta
 6. Lur Iosu Larraza Lopez
 7. Maria Saez De Albeniz Bregaña
 8. Aritz Ikobalzeta Mardaras
 9. Aberri Barandalla Fernandez
 10. Pedro Ignacio Elvira Lazkoz
 11. Juan Manuel Sanchez Lopez
- Ordezkoak**
1. Arkaitz Munarriz Igoa
 2. Xochitl Karasatorre Mendez
 3. Onintza Goñi Iraurgi
 4. Sonia Ulaiar Reparaz

Partido Popular

1. J.A. Extremera Apestegia
2. Maria Del Carmen Macias Ruiz
3. M^a Loretto Manrique Larraza
4. M^a Nieves Covarrubias Arriazu
5. Manuel Samaniego De Caceres
6. J.C. Samaniego Covarrubias
7. Ramon Riera Quesada
8. Marcos Ibañez Ibarrola
9. Maria Esther Martinez Zarranz
10. Carlo Giacomo Angrisano
11. Ramon A. Moreno Bustos

Bakaiku

EH Bildu

1. Egoitz Urritza Lazkoz

2. Aner Galarza Barandiaran
3. Asier Razkin Ondarra
4. Miren Izaskun Kintana Etxeberria
5. Francisco Javier Zeberio Arraras
6. Pedro Maria Olea Armendariz
7. Ion Tabar Cayuela

Ordezkoak

1. Ana Isabel Kaiuela Iturriza
2. Amaia Aleman Frutos
3. Eneko Larrañaga Flores

Iturmendi

EH Bildu

1. Victoriano Gabirondo Lanz
2. Nemesio Galarza Otxoa
3. Jose Angel Garcia Gabirondo
4. Maria Rosario Galarza Zelaia
5. Kai Galarza Cervera
6. Ricardo Lopez Galarza
7. Norberto Lopez Galarza

Urdiain

EH Bildu

1. David Carmelo Oroz Alonso
 2. Aitor Irigoien Irigoien
 3. Oihana Gallo San Roman
 4. Aitor Zubiria Arregi
 5. Iñaki Galarza Agirre
 6. Francisco Berdote Hernandez
 7. Margarita Mendia Goikoetxea
- Ordezkoak**
1. Alex Lopez de Goikoetxea Eskisabel
 2. Aitziber Irigoien Irigoien
 3. Sebastian Aristizabal Irigoien

Altsasu

EH Bildu

1. Miren Arantza Bengoetxea Intxausti
2. Francisco Javier Paz Miño
3. Haizea Ramirez De Alda Pozueta
4. Jose Luis Ojer Mangas
5. Iñaki Romero Torres
6. Saioa Erro Gonzalez
7. Erkuden Andonegi Martinez
8. Alberto Anton Reparaz
9. Maria Del Carmen Goikoetxea Labiano
10. Raul Barrena Gonzalez
11. Luisa Maria Larrañaga Diaz
12. Iñaki Esnal Iturriz
13. Itxaso Alzelai Urdaniz

Ordezkoak

1. Garazi Urrestarau Zubizarreta
2. Maria Asuncion Fernandez de Garayalde-Lazcano Sala
3. Camino Mendiluce Arregui
4. Gerardo Del Olmo Ramirez

Geroa Bai

1. Javier Ollo Martinez
2. Pedro Maria Jimenez Elvira
3. Unai Hualde Iglesias
4. Santiago Luceño Arias
5. Maria Carmen Otaegi Saez de Maturana
6. Manuel Bergera Ijurko
7. Jose Angel Agirrebengoa Imaz
8. Maria Ruiz Moreno
9. Julen Diaz Oiarbide
10. Maria Carmen Viana Murga
11. Jose Ramon Mintegui Larraza
12. Maria Carmen Goikoetxea Napal
13. Erkuden Goikoetxea Askorbe

Goazen Altsasu

1. Virginia Alonso Aparicio
2. Pedro Jose Arregi Mugika
3. Jose Luis Moran Fernandez
4. Iñigo Agirre Jaureguialzo
5. Susana Alves Suarez
6. Juan Luis López Muñoz
7. María Dolores Mendizabal San Pedro
8. Jose Santiago Gomez Andres
9. Susana Barquilla Ruiz de Gordo
10. Fernando Gutierrez Castro
11. Claudia Cristina Vales Teniz
12. Jose Antonio Palop Quesada
13. Francisco Palomares Fuentes

Izquierda-Ezkerra

1. Santiago Moreno Guisado
2. Gonzalo Montoya Serrano
3. Jose Pedro Palacios Baz
4. Beatriz Fernandez Santano
5. Virginia Potenciano Alonso
6. Maria Asuncion Palomino Mateo
7. Gaizka Ocaña Goikoetxea
8. Marta Barquilla Barroso
9. Aurelio Lucas Andrades
10. Adriana Remigio Rodriguez
11. Luis Perez Iglesias
12. Maria Yolanda Pelaez Lopez
13. Arturo Carreño Parras

Partido Popular

1. Carlos Lopez Garcia
2. Miriam Catalan Sainz
3. Francisco Javier Millan Garcia
4. Zusel Granados Galvez
5. Antonio Roque Martin
6. Enrique Portillo Santaolalla

7. Jose Angel Del Castillo Pastor
8. Noelia Guirau Mendez
9. Miguel Antonio Torres Garcia
10. Teresa Triviño Orovio
11. Luz Estela Giraldo Mejia
12. Agustin Juan Diaz De Mera Garcia Consuegra
13. Francisco De Borja Gimenez Larraz

Partido Socialista de Navarra

1. Juan Miguel Perez Hurtado
2. Julia Cid Gonzalez
3. David Medina Castro
4. Adelina Blanco Mayor
5. Javier Madinabeitia Otxoa
6. Maria Pilar Ferrero Peso
7. Jesus Maria Velez Zufiaurre
8. Milagros Maderal Rodriguez
9. Felix Adan Gaitan
10. Maria Dolores Beatriz Salvo Gracia
11. Isidro Severiano Blazquez Marcos
12. Javier Ramirez Perez
13. Maria Asuncion Apestegia Jaurrieta

Union Del Pueblo Navarro

1. Javier Lopez Patus
2. Juan Francisco Naranjo Cruz
3. Josu Goñi Leon
4. Ana Isabel San Martin Aniz
5. Maria Reyes Lerga Arbe
6. Francisco Javier Torrecillas Martinez
7. Carlos Casimiro Salvador Armendariz
8. Cristina Moreno De Gracia
9. Maria Angeles Goñi Abaurrea
10. Ignacio Igea Sainz
11. Maria Paz Palacio Lopez Herce
12. Isabel Pola Caro
13. Alberto Catalan Higuera

Olatzagutia

EH Bildu

1. Gurutze Rodriguez Armendariz
2. Patricia Fernandez Ganuza
3. Haizea Armendariz Santamaria
4. Mikel Azkargorta Boal
5. Egoitz Aldaz Osinaga
6. Rafael Vizuetza Pajares
7. Irati Lopez de Goikoetxea Otxandorena
8. Ibai Barandiaran Albiztur
9. Iñaki Garmendia Beunza

Partido Popular

1. Jose Luis Miñez Baleta

2. Inmaculada Allaga Benitez
3. Juan Jesus Aznar Morales
4. Patricia Navarro Perez
5. Jesus Alberto Laspalas Bikondoa
6. Pedro Luis Rovira Rubio
7. Cristina Montero Morales
8. Leire Herrero Saez De Eguilaz
9. Salvador Millan Lara

Partido Socialista De Navarra

1. Jose Maria Acerete Sanchez
2. Javier Murugarren Clavijo
3. Ana Azcarate Sainz
4. Enrique Jose Gil Rico
5. Sandra Liliana Mora Gonzalez
6. Mariano Gumersindo Garcia Leiva
7. Maria Itziar Izagirre Unanue
8. Rafael Bezanilla Ruiz
9. Maria Pilar Bermejo Martinez

Unión Del Pueblo Navarro

1. Oscar Alvarez Peon
 2. Juan Jose Galarza Aldabe
 3. Javier Fernandez Brizuela
 4. Jorge Esparza Garrido
 5. Maria Mercedes Sampedro López
 6. Walter Franklin Lockhart Lostalé
 7. Luis Zarraluki Ortigosa
 8. Juan Maria Azkona Alvarez
 9. M^a Inmaculada Kutz Peironcelly
- Ordezkoak**
1. Carlos García Adanero
 2. Juan Luis Sánchez De Muniain Lacasia

Ziordia

EH Bildu

1. F. J. Bengoetxea Morante
 2. Edurne Casas Otxoa
 3. Francisco Javier Peral Cuesta
 4. Olatz Irizar Martinez
 5. Jose Miguel Martis Arguibai
 6. Ainhoa Iparragirre Mendia
 7. Pedro Maria Gastaminza Arbizu
- Ordezkoak**
1. Bernat Berasategi Bengoetxea
 2. Maria Dolores Ruz Capellan
 3. Iker Percz Urdaian

Geroa Bai

1. Miguel Angel Agirre Larraza
2. Fernando Fuste Martin
3. Pedro Lezea Cuello
4. Omar Cascio San Vicente
5. Consuelo Ramirez Forcada
6. Jon Urra Martinez
7. Mikel Saez Ocaranza

PPSOE,
ETB
digitala
Nafarroan
orain!

Berria erosi taldea

Sorgiñak
taberna



LAKUNTZA
948 576 357

Ana Santano

Bularra ez da soilik elikadura
Edoskitzerako
amendako
laguntza

Ikastaroa
Malatzak 20, 17:30etan
haurdunendako ikastaroa
Malatzak 27, 17:30etan
lehen hilabetekoendako

635 811 106 · Gartzia Ximenez 16 · Altsasu

www.pescaderiamariaeugenia.com
Arratsalde zabalik



mariaeugenia
Arrainak

Unai: 607 804 316 / Olaia: 678 564 722
El Ferial, 1 · 948 467 950 / Isidoro Melero · 948 467 725

» Etxarri Aranatz

Urbasako saroiko lezeko hezurduretako bederatzia identifikatuak

Izena falta zuten bost hezurduretatik lau etxarriarrenak da: Clemente Araña, Paulo Garcandia, Andres Gonzalez eta Antonio Maiza. Aurretik, Narciso Artola identifikatua zegoen

Aranzadi zientzia elkarteak Balbino Garcia de Albizu Asurabarrena, Gregorio Garcia Larranbeberre eta Balbino Bados Garcia ameskoarren, Jose Urbizu Berasategi zegamarraren eta Narciso Artola Razkinen hezurrei aurretik izena emana zien. Urbasako saroiko lezean opatutako beste bost hezurdurei izena jartzea falta zen. DNA probek eman diete. 1936ko irailaren 6ko goizaldean erail zituzten. Kasuak baztertuz, identifikatzeko falta den horri izena ematea errazagoa izanen dela uste du Amaia Urkijo altsasuarrak.

Berak eta Balbino Garcia de Albizu ameskoarrak egindako ikerketaren emaitza dira identifikazioak. Artola identifikatu zutenetik nahiko argi zuten saroiko lezean beste lau etxarriarrak izanen zirela, Urkijok esan digunez, "bostak egun berean hil zituztela garbi baikeneukan". Pasa den asteartean poz handia hartu zuten bai ikertzaileek baita eraildakoen



Identifikatutako etxarriarrak UGTko kideak ziren.

Dozena bat sakandar identifikatzeko

Esperientzia honek eman dion eskarmentuarekin Urkijok esan digu: "agian Otsoportillon zeudela uste genuenak ez daude han. Urbasan leze asko daude. 78 urteko gezurraren ondoren nik denetarik sinistu dezaket". Urdaindar bat, sei altsasuar, hiru olaztiar eta bi ziordiar opatzeko falta dira. Arabako Lautadako eta Iruñekoren bat egon daitezke ere.

Saroiko azken hezurdurari izena

eman ondoren, Otsoportillokoak identifikatzeko lanean hasiko da Urkijo. Lagundu nahi duten senideekin harremanetan jartzea besterik ez dute. Urkijok azaldu digunez, Otsoportillokoa zailagoa izanen da: "hezurrak lapurtu dituztela eta lezean hezetasun handia dagoelako. Garai batean jaitzi eta gorpuzkiak jaso ziren kutxa batean sartzeko. Urez beteta dago. Ez omen daude baldintza egokitan".

Dirua

Identifikazioek 10.500 euroko kostua izan dute. Memoria Historikoaren Legearen arabera Nafarroako Gobernuak ordaindu behar ditu identifikazio gastuak. Baina horretarako diru-sailik ez du jarri. Senideek eta Ameskoako, Etxarri Aranazko, Altsasuko eta Olatzagutiko udalek aurreratuko dute dirua, gero kobratzeko esperantzarekin.

senideek. Hasieran, Urbasako saroiko lezean egonen zirenen zalantza izan zuten, beti Otsoportillon zeudela uste izan baitzuten.

Elkartu

Urkijok azaldu digunez, orain familia guztiak elkartu eta ekitaldiaren bat eginen lukete. Familietako batzuk dagoeneko aurreratu dute euren senidearen hezurdurak jasotzen dituzten kutxak Urbasako saroiko lezean uzteko eta hura zigilatzeke nahia. Hala eginen balitz izen-abizenak dituen plakaren bat jarriko litzateke.

+www.guaixe.eus

» Irurtzun

Elikagai Bankuaren alde izanen da bigarren eskuko azoka

igandean, 10:00etatik 14:00etara, Irurtzunge plazan. 60 familiarendako hiru hilerako esnea eta olioak erosiko dira

Itxipuru taldeak antolatutako udaberriko bigarren eskuko azoka oraingoan Irurtzunen bertan martxan den egitasmo bat laguntzeko izanen da: Elikagai Bankua. Irurtzunen eta eskualdean premia duten familiei hiru hilabetez esnez eta olioak hornitzeko adina diru ateratzea da helburua. Azokatik pasatzen denak prezio onean denetarik erosteko aukera izanen du. Horretaz aparte, haurrentako ludoteka, taberna, musika eta goiza ederki pasatzeko beharrezko guztik izanen du.

Irurtzun aldeko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak dira familien egoera aztertu eta Irurtzunge eta Uharteko Arakilgo Elikagai bankuen ardura dutenak. Bankura jotzen duten familia gehienak Irurtzungeak dira baina Arakil, Larraun eta Imotz aldekoak ere badaude. Gizarte Zerbitzuetatik jakinarazi digutenez, azken bi urteetan baliabide hori eskatzen duen familia kopurua berdintsu mantendu da: 2013ko martxoan 66 familia edo 206 pertsona (Irurtzunen soilik); 2014ko martxoan 66 familia edo 211 pertsona eta aurtengo martxoan 60 familia edo 200 pertsona.

Iruñetik jasotzen dute Irurtzun-



Biharko azokaz aparte, maiatzaren 2an afaria izanen da. UTZITAKOIA

go eta Uharteko Arakilgo Elikagai Bankukoek banatu beharreko jakiak. Azken hilabeteetan kopu-

ruak behera egin du eta jasotakoa banatzen dute, baina ez esnerik eta ez oliorik. Azokatik ateratakoare-

Boluntario izan nahi?

Norbaitek boluntario izatea nahi badu 639 127 271 telefonora hots egin behar du.

kin bankua bi produktu horiekin hiru hilerako hornitzea esperodute.

Janaren bilketa eta banaketaz boluntario talde bat arduratzen da. Haiekin elkarlanean aritzen dira Gizarte Zerbitzuak. Elikagaiak hilean behin banatzen dituzte. Duela bi urte Irurtzunen 23.732 kilo banatu zituzten. Joan den urtean, berriz, 22.479 kilo (Uhartekoa aparte). Banaketa Gizarte Zerbitzuen aurreko egoitzaren bulegoan egiten da. Nafarroako Gobernuak eraikina zeregin horretarako 2025era arte utzi die.

BILTOKI
TABERNA • JATETXEA

Pintxoak
Bokatak
Plater konbinatuak
Karta

Asteleheneetik ostiralera
Eguneko menua 8,25€

Asteburuetan
Menu berezia 25€

948 467 876 • Altsasu

Auto aseguroak

Batzuek promes egiten dute, guk bete egiten dugu

JOSE ANTONIO IMAZ PRIM

Informa zaituz
948 563 354

jjimazpr@mapfre.com
San Juan 48 • ALTSASU

MAPFRE
Tu aseguradora global de confianza



Nonerabili

TEXARTU

IRUÑEA

Eskaintza kanpainaren arabera.

CLINKER

OLAZTI

Menuarekin kafea eta kopa doan.

SORKUNDE HARATEGIA

ALTSASU

50 €ko erosketetan etxeko produktoa doan.

BERRIA EGUNKARIA

Harpidetza eginez gero %50eko deskontua.

IKER KIROLAK

ALTSASU

50 €tik gorako erosketetan, %10eko deskontu-bale bat hurrengo erosketan erabilitzeko.

URGAIN ALBAITARITZA ZENTROA

ETXARRI ARANATZ
% 20ko deskontua kontsultan.

BASOMUTUR

ALTSASU

Menuan eta kartan %6ko deskontua.

BILTOKI TABERNA

ALTSASU

Eguneko menuan, kafea doakoa. Karta menuan, kopa doakoa.

IÑAKI OINETAKOAK

ETXARRI ARANATZ
50€ko gastuarekin, %10eko deskontu-balea.

GERTU SAKANA

ALTSASU

Sukalderako tresnerian 50€ko erosketan egitean %10eko deskontu balea hurrengo erosketarako.



GRUPO TANATORIO

IRACHE

TANATORIO TALDEA

948 197 070

Tanatorioak: Altsasu-Irurtzun-Lekunberri-Betelu-Leitza

www.tanatoriosirache.com



Eskertzak eta eskelak osteguneko goizeko 11:00ak arte jasotzen ditugu.
Bidali mezua zorion@guaixe.net -era edo hots egin **948 564 275** telefonora.



Hainbat aukera. Galdetu 948 564 275



GRUPO

Funeraria

VASCONGADA

Ehorzketak

TALDEA

Olaberrian bertan **BEILATOKIA** eta **ERRAUSTOKIA**

www.funerariavascongada.com

24 ORDUZ: **943 106 222 • 943 376 980**

guaixe.iragarkilaburrak.com

1 HIGIEZINAK	4 DENETARIK	7 AISIA/KIROLA
2 TEKNOLOGIA	5 IBILGAILUAK	8 FAMILIA/ETXEA
3 LANA/NEGOZIOAK	6 HARREMANAK	

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Guaixe astekarior: Astebate: 3€ / 3 Astez: 8€ (BEZ barne).
Argazki bakoitzeko 3€.
Lan eskaerak/eskaintzak eta pribatuak ez diren ikastaroak: **doan**.
Webgunean: guaixe.iragarkilaburrak.com-en.

HARREMANETARAKO

Telefonoa: 948-56 42 75
Posta elektronikoa: zorion@guaixe.net

Higiezinak

ETXEBIZITZAK

SALGAI

Etxarri Aranazko Malkorramendi kalean pisua saltzeko premia dugu. AUKERA EZIN HOBEA!! Deitu 690 39 61 92 telefonora.

Lehiaketa

Haur literaturako Mikel Zarate lehiaketa. Lezamako udalak eta Elkar argitaletxeak, 6 eta 12 urte bitarteko haurrendako irakurgai berriak sortu eta idazleen lana bultzatzeko asmoz antolatuta dute lehiaketa. Lanak hartzeko azken eguna apirilaren 30 a izanen da. Argibideak deitzaleen web orrietan.

Erromantzatuauren koloreak. Nafarroako ekialdeko eskualdeko pintura lehiaketa antolatuta da. Maiatzaren 25era arte aurkeztu daitezke lanak. Informazioa: www.restauranteromanza-do.com

Irurtzango festen kartela. Maiatzaren 29ra arte aurkeztu daitezke lanak. Haur maila (14 urte arte) eta helduen maila daude. Informazio guztia: www.irurtzun.es

Pedro de Atarrabia. Kontakizun laburren lehiaketa, euskaraz eta gaztelaraz. Informazioa Atarrabiko udalean: www.villava.es

Oharrek

Odol-emaileak. Apirilaren 30ean Irurtzunen, arratsaldez; maiatzaren 6an eta 13an, Etxarri Aranatzun, arratsaldez.

Album ilustratuen tailerretako izen ematea zabalik. Sakanako Mankomunitateko Euskara zerbitzuak album ilustratua sortzeko tailerra antolatuta du. 6 eta 10 urte bitarteko haurrei zuzenduta dago. Apirilaren 24an, ostiralez, 18:00etatik 20:00etara izanen da, Ziordiko liburutegian. Izen ematea zabalik Ziordiko liburutegian bertan, 948 46 89 70 edo ziordialib@cederna.es

"Behi euskaldun baten memoriak". Etxarri Aranazko irakurle taldea liburu horren inguruan hizketatuko da apirilaren 30ean, ostegunetan, 19:00etan liburutegian.

Bertso-udalekuak. Euskal Herri osoko haur eta gazteek parte hartu dezakete bertso-udalekue-tan. Euskal Herriko Bertsolari Elkarteak antolatzen ditu. Informazio guztia: <http://www.bertsoszale.eus/eu/bertso-udalekuak>.

Artisten auzoa. Ekainaren 1ean, eta aste batez, Iruñeko kaleetan artisten lanak ikusgai izanen dira. El Barrio de los Artistas ekimenean parte hartu nahi duenak <https://someselbarriodelosartistas.wordpress.com> blogean bidez izen emate fitxa bete behar du. Apirilaren 27ra arteko epea dago.

Axio. Jose Ignacio Flores buruzko dokumentala egiteko diru-laguntza eman nahi duenak ES04 3035 0112 00 1121055951 kontu korrantean edo www.karena.eu plataformaren bidez egin dezake. Informazio gehiago www.axioflores.com

Iruñeko euskarazko telebistaren alde. Xalao telebistak Iruñerriaren euskara hutsean emititzen hasteko 50.000 € behar ditu. Diru ekarpena non? www.karena.eu/proiektua/xalao-telebista-irunherria edo Iruñeko Karrikiri Euskal dendan (Xabier Karrika 4) eta Katakarak liburudendan (kale Nagusia 54).

Autoenplegurako laguntza. Zure lanpostua sortu nahi baduzu Cederna-Garalurrek honako laguntza eskaintzen du: ideia aztertzea, proiektua garatzea, enpresa sortzea edota martxan dagoen jarduera sondotzea. Argibide gehiago: 948 56 70 10, sakana@cederna.es edo sakana.admon@cederna.es

Nafarroan herri komunikabide bat sortzeko. Diru bilketa hasi dute, Ahotsa behar dugu lelopean. Ekarpentak kontu korrantean (3035 0229 39 2290033933 Laboral kutxa) edo <http://goteo.org/project/ahotsa-behar-dugu?lang=eu> bidez egin.

Tartalarientako laguntza. Laguntza ekonomikoa Laboral kutxa 3035 0068 08 0680058591 korrantean sartu daitezke.

Mintzake proiektua. Egonkortzeko denon laguntza behar dugu, lagundu zabalitzen eta finantzatzeko: <http://goteo.org/project/zu-gabe-zin>

Iragarkilaburrak

PREZIOAK egokitu ditugu!!

3€

3 astez jarritz eskaintza berezia: **8€** (BEZ barne)

Sail berria TRUKEAK

Nafarroako Elikagaien Bankuaren alde. Diru ekarpenak kontu korrante hauetan egin daitezke: Laboral kutxa 3035 0069 52 0690024878, Rural kutxa 3008 0001 16 0700279128 eta Caixabank 2100 2173 87 0200346965.

Euskonews ekonomikoki laguntzeko kanpaina. Informazio gehiago: www.euskonews.com/laguntza euskonews@euskonews.com, 943- 32 22 94.

3MBk kontu korrantea zabaldu du. Rural Kutxa eta jendeak han egin ditzake ekarpenak. Kontu zenbakia: 3008 0093 66 2460985811.

Auzolana Josefina Arregui klinikan. Auzolanean parte hartu nahi dutenek 948- 56 38 50 (klinika) edo 689- 03 51 20 (Patxi) telefonoe-tara hots egin dezatela.

Bazkideak Josefina Arregi klinikarako. Bazkidea izan nahi duenak urtean 12 € edo nahi duen kopurua eman dezake. Informazio gehiago: amigososefinaarreguilagunak.blogspot.com edo amigososefinaarreguilagunak@gmail.com

Eskuratu zure beleixeguaixe txartela. 50€ko kuota urtean eta deskontu eta abantaila paregabeak betirako. Deitu 948 564 275 eta izena eman edo bete formularioa gure webgunean www.guaixe.net.

Nafarroako Ondarearen Defentsarako Plataforma laguntzeko. Eliza katolikoak, Iruñeko eta Tuterako Elizbarrutiaren bidez, Nafarroako herrietan egiten ari zen ondare publikoaren inmatriculazioei aurre egiteko sortu zen. Egoitza Iruñeko Estafeta kaleko 57. zenbakian dago. Liburua argitaratu dute, hitzaldiak eman. Laguntza jasotzeko ondoko kontu korrantea zabaldu dute Nafarroako Kutxan: 2054/0142 68 9152623199.

Lugorri produktu ekologikoen elkarte eta denda. Sakanako produktu ekologikoen zuzenean eskuratzeko gunea da Lugorri, inguruko nekazari eta abeltzainekin harremanetan jarritako hornitzaile desberdinei eskatuz. Bertako eta urtaroko produktu ekologikoen alde egiten du Lugorri. Lugorriko partaide egiteko 50 euroko kuota bakarra eskatzen da. Lugorriko Lakuntzako dendan (Mankomunitatearen parean) salgai dagoena: fruta, barazkiak, ogia, ardoa, olioak, gazta, arroza, pasta, gailetak, txokolata, haragia, behi esne eta esne begetalak, ezitia, arrautzak, garagardoa, lekaleak, ozpina... Informaziorako: 656 711 130 (Gorka).

Herialde behartsuak laguntzeko Etxarriko boluntarioen kanpaina. Haietan premiazkoak direnak, eta Etxarri jasotzen direnak: udako arropa eta oinetakoak; sehaskak; ohe arropa; esku oihalak; sukaldeko tresneria; idazteko makinak; ordenagailuak; kanpin dendak... Nora eraman: Etxarriko Eliz korta kalera, gaztetxe ondora, irratia zegoen tokira, astelehen eta asteazkene-tan. Harremanetarako: 948 460 804 edo 948 460 875 telefonoak.

Kultur bitartekaritzaz itzulpen zerbitzua Sakanan. Sakanako Mankomunitateko Immigrazio Zerbitzuak martxan jarria, etorkinek hurreman zuzenean ari diren profesionalak, eta baita etorkin berriei ere, bai ahozko nola idatzizko itzulpen zerbitzua eskaintzeko. Eskaintzen dena: itzulpenak bai frantsesera nola arabierara, eta hizkuntza ezberdinak direla medio, sor daitezkeen gatazken aurrean bitartekaritzaz zerbitzua. 9:00etatik 10:30era osasun zentroetan, 11:00etatik 12:30era ikastetxeetan eta 13:00etatik 14:30era gizarte zerbitzuetan. Astelehenetan Etxarri Aranatzun, asteartetan

JAIOTZAK

- **Alain Navarro Arrue**, apirilaren 8an Etxarri Aranatzun.
- **Libe Ekiza Elizondo**, apirilaren 8an Etxarri Aranatzun.
- **Osane Amillano Rubio**, apirilaren 14an Altsasun.
- **Nahuel Amaru Tabi Camuendo**, apirilaren 15ean Irurtzunen.

HERIOTZAK

- **Celestina Armendariz Alduntzin**, apirilaren 1ean Dorraon.
- **Maria Angeles Lizarraga**, apirilaren 10ean Dorraon.
- **Maria Agirre Lopez**, apirilaren 13an Iturmendin.
- **Gregorio Aristu Uria**, apirilaren 14an Olaztin.
- **Maria Antonia Mendia Urrestarazu**, apirilaren 15ean Altsasun.
- **Rufina Prieto Olivenza**, apirilaren 17an Altsasun.
- **Jose Martin Alonso**, apirilaren 17an Olaztin.
- **Catalina Sanchez Leo**, apirilaren 19an Altsasun.

Informazio hau epaitegietan eta udaletan jasotzen da. Agertu nahi ez duenak, han jakinarazi dezala.

Irurtzunen eta ostegunetan Altsasun. Aurretik txanda eskatu 648 07 07 10 edo immigrazio@sakana-mank.com posta elektronikoa.

Gazteendako sexualitate aholkularitza. Hileko lehen asteartean, 15:00etatik 17:00etara Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean (Burunda kaletik sartuta). 948 564 785 telefonoa edo gazteria@altsasu.net helbidea). Adina: 12-30 urte.

SASKIBALOIA

3X3 SASKIBALOI JARDUNALDIA ETXARRIN: Mank-eko Kirol Zerbitzuak antolatutako saskibaloi topaketan barruan, igan-

dean, 11:00etan, 3x3 Saskibaloi Jardunaldia jokatu da San Donato ikastetxean. Jokalariak hiruko taldetan lehiatu dira.

Frontenisa

Animatu Sakanako Emakumeen Frontenis Txapelketara

Maiatzaren 30ean hasiko da eta izena ematea zabalik dago

Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak, Etxarri Aranazko Udala-ren eta Gure Pilota taldearen laguntzarekin, Sakanako Emakumeen Frontenis Txapelketa antolatuko du. Txapelketa maiatzaren 30ean hasiko da eta hiru mailatan jokatu da: 3. maila, hasiberriendako eta frontenisaz gozatu nahiduten helduendako, 2. maila eta 1. maila. Partidak ostira eta larunbatarratsaldetan eta igande goizetan jokatu dira, Etxarri Aranazko pilotalekuan. Antolatzaileek aipatu txapelketa herrikoian parte hartzerako animatu diete Sakanako emakumeei, kirola egiteaz aparte, ongi pasatzeko.



IZENA EMATEKO

Izena ematea zabalik dago, apirilaren 30era arte. Horretarako Mankomunitateko Kirol Zerbitzura hots egin behar da, goizez (948 464 866) edo Gure Pilota Elkartera, arratsaldez (638 138 231). Bikoteko 20 euro ordaindu beharko dira.

Sokatira

Andra Mari eta Iñigo Aritza Nafarroako Lauko Txapelketan

Larunbatean lehen jardunaldia jokatu zuten Berriozarren

Asteburuan hasi zen Nafarroako Herri Kirol Federazioak antolatutako Nafarroako 4x4 Sokatira Txapelketa. Lau tiratzailez osatutako taldeak lehiatzen ari dira, hiru mailatan: gizonezkoetan (320 kilo, 7 talde), kadeteetan (280 kilo, 7 talde) eta emakumezkoetan (255 kilo, 3 talde). Gizonezkoetan eta emakumezkoetan dugu ordezkari sakandarririk, tamalez. Talde sakandarrak kadeteen mailan lehiatzen ari dira, Andra Mari eta Iñigo Aritza taldeak, hain zuzen.

Lehen jardunaldia larunbatean jokatu zen Berriozarren, bigarren larunbatean jokatu da Larraitzen, 18:00etan, hirugarrena Beteluk hartuko du, maiatzaren 9an, eta azkeneko jardunaldia Etxarri Aranatzen jokatu da, maiatzaren 16an. Lehen jardunaldian, kadeteen mailan, Ultzama Aizan zen onena (7 puntu), Berriozar A (6 puntu) eta Andra Mari (5 puntu) taldeen aurretik. Atzetik sailkatu ziren Araxes (4 puntu), Iñigo Aritza (3 puntu), Ultzama B (2 puntu) eta Berriozar B (puntu 1).

Pilota

Bigarren txapela nahi du

Bilboko Bizkaia pilotalekua prest dago iganderako espero den Binakako final ikusgarri eta borrokatua hartzeko. Pablo Berasaluze eta Aitor Zubietak etxarriarra batetik, txapelketa honetarako propio sortutako bikoia, Aspek Asegarceri Binakakorako utzi baitzion. Eta Oinatz Bengoetxea eta Andoni Aretxabaleta ordezkatu zuen Alvaro Untoria bestetik, txapelketan behetik gora egin zuen bikotea. Asegarceren bi bikok borrokatuko dute jokoan dauden bi txapelengatik eta, jakina, guk gure ordezkari sakandarrari, Aitor Zubietari, opa diogu onena. Ea txapela Etxarri Aranatzera etortzen den.

Bilbon herriko zaleen babesa izanen du Zubietak, berari emandako 200 sarrerak berehala agortu baitziren. "Kantxan zaleen babesa nabaritzen da, animoak beti laguntzen du. Bizkaian Pabloren aldeko jarrera dago eta horrek lagundu ahal badigu ba hobe" dio. Bere herriarendako hitz ederrak ditu Aitorrek. "Giro oso ona dago Etxarrin. Jendeak jarraitu nau, gogo askorekin dago eta hori niretako kristorena da. Herrian eta herri inguruan ilusio hori ikustek niri eta familiari ikaragarri betetzen gaitu. 2010eko giroa ikusten dut: jendea partidara joateko gogoz, sarreraren bila, igandeko ospakizunetarako prestatzen... Irabazi edo galdu, jendearen goxotasuna geratzen zaizu eta hori izugarri eskertzekoa da.

Zubietak: "partida ona egitera aterako gara"



Zubietak lasai topatu dugu. "Aurreko astea mugitua izan zen. Pentsa, sarrerak... Aste honetan normaltasunera itzuli naiz. Entrenatu, basora buelta ematera joan... 24 orduak partidarekin ez egoten saiatu naiz. Onena errutina da" dio atzelariak. Bere ezker eskua zaintzen aritu da. Pedro Garcia masajistarekin lanean ibili da, eskuak ahalik eta hobekien jartzeko. "Finalerdien ondoren aste bateko atsedena hartu nuen eta larunbatean suabe-suabe ikutu nuen pilota. Asteartearen Berasaluzerekin entrenatu nuen. Takoak jarrita eta kontuz ibiliz nahiko ongi sentitu nintzen, ezkerrekin nahiko itxuran. Ea finalean berdin nagoen. Eskua hobeto dago, 100% errekeratuta ez, baina bai aurreko partidaren baino tako kopuru gutxiago jartzeko moduan" gehitu du. Berasaluzerekin biko ederra osatu du Zubietak, baina txapelketako onena izan den Oinatz Bengoetxea eta Alvaro Untoria dituzte arerio. "Aurkariak ikusgarri daude. Oraindik hitz egin beharra dugu, baina uste dut gure taktika izango dela biok partida ona egiten saiatzea, partida gogorra izatea, eta guk ahal dugun maila onena ematea, orain arte saiatu garen bezala. Gu gure jokoarekin gustura gelditzen bagara, hori lortzen badugu, txapela gertuago izango dugu. Guk gure maila lortzea, egingo dugurekin gustura geratzea, hori izango da gako" azaldu digu etxarriarrak. Partida gogorra izango dela nabarmendu du, "opari gutxierekin".

Txapelaz

Txapela ekartzea "ez zen txarra izango" dio Zubietak. "Ahaleginak egingo ditugu, ea ongi ateratzen den. Partidarekin gustura gelditzea, hori da inportantea. Partida on bat egiten badugu eta gainera txapela ekartzen badugu... hobeto ezinezkoa" dio atzelariak.

Sei partida Irurtzungo Txapelketan

23. Irurtzungo Pilota Txapelketan asteburu honetan 6 partida jokatu dira: ostiraletan bi Irurtzunen, larunbatean bi Arbizuko kiroldegian eta igandean bi Etxarrengo pilotalekuan.

Aurreko asteko emaitzak:

Etxabarri-Alduntzin **12** / Iriarte-Labaka **22**
Azpiroz-Ugalde **22** / Quina-Biain **10**

Asteburukoa

Ostiraletan 19:15ean, Irurtzunen: Ioldi-Martija / Arrieta-Lizeaga
Otxandorena-Irañeta / Vidan-Etxamendi

Larunbatean, 17:30ean, Arbizun: Mendiñeta-Perez / Bakaikoa-Lasa

Ezkurdia-Tabar / Lopez-Larraia
Igandean, 11:30ean, Etxarrean: Iriarte-Labaka / Azpiri-Peñas
Ongai-Landiribar / Flores-Ugalde

Irurtzun Berria txapelketatik kanpo

Arabako Txukun Lakuaren kontra 2-1 galdu zuen

Asteburuan hasi zen Berria Pilota Txapelketa, final zortzirenekin. Irurtzunek Arabako Txukun Lakua izan zuen aurkari. Jokatuak 3 partidetatik 2 Txukun Lakuak irabazi zituen eta bakarra Irurtzunek. Hortaz, Irurtzun txapelketatik kanpo geratu da.

Emaitzak:

Kadeteak: Uribe-Aiesta (Txukun Lakua) **22**
- Aizkorbe-Goikoetxea (Irurtzun) **19**
Jubenilak: Lopez de Calle-Puyo (Txukun Lakua) **15** - Zudaire-Ustarrotz (Irurtzun) **22**
Seniorrak: Mendiñeta-Perez (Txukun Lakua) **22** - Ongay-Mariezcurrera (Irurtzun) **16**



Ongay ezin izan zuen irabazi.

Parte hartu Guaixeko porran

Guaixen Binakako finalerako porra egin dugu. Nork irabaziko du eta zein emaitzarekin? Bidali erantzuna guresare sozialetara: Facebookera (Guaixe Sakanako Astekaria) eta Twitterera (Guaixe), igandea 16:00ak baino lehen. Aitor Zubietak gure porra irabazten duenari kamiseta, pilota eta txartela sinatuko dizkio.

Ospakizuna Etxarriko karpan

Zubietak badaki zer den Binakako txapela janztea. 2010ean lortu zuen, Xalarekin, eta orduan Etxarrin egin zioten ongi-etorria ikusgarria izan zen. Eta antzeko giroa aurrekusten da iganderako. Zubietak irabazi ala galdu, igandean etxarriarrek gogoz ospatuko dute herriko pilotaria finalera iritsi izana. Garagardo festarako jarritako karpa mantendu dute eta bertan egingen dira ospakizunak. Afarirako txartelak salgai egon dira eta parranda luzatuko dela espero da.

XXVI. SAKANAKO IBILALDIA
IRURTZUN

2015eko MAIATZAREN 9a

IBILBIDE LUZEA: IRTEERA: 06:00
54 Km. 3.388 mko desnibela

IBILBIDE MOTZA: IRTEERA: 07:30
27,5 Km. 1.344 mko desnibela

www.iratxoelkartea.com
iratxomendi@gmail.com

ANTOLATZALEA: Iratxo Elkartea
LAGUNTZALEAK: Ibilaldia, Nafarroako Gobernua, SURYA, Kaiku, Mank, FUNDACIÓN CAJANAVARRA, Noticias

GUAIXE.EUS beleixe

Futbola-Triatloia



Futbolariak udako futbol campusean trebatzen.

Udan... futbolearen eta triatloian sakondu!

Sakanako Mankomunitateak Udako Futbol Campusa eta Udako Triatloi Campusa antolatu ditu, garilean Altsasun gauzatuko direnak. Izen-ematea orain egin behar da

Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak udako futbol campusa eta udako triatloi campusa antolatu ditu garilerako, Altsasuko Dantzalekun eta Altsasuko Zelanding gauzatuko direnak. Udako oportetean futbolearen eta triatloian sakontzeko aukera ematen diete neska-mutikoei urtero arrakastaz gauzatzen diren futbol eta triatloi campusek.

Futbol campusa, Altsasuko Dantzalekun

Aurreko urtean udako futbol campusa Uharte Arakilgo futbol zelaian eskaini zen, bi txandatan. Guztira, 39 neska-mutikok hartu zuten parte. Aurten udako futbol campusa Altsasuko Dantzaleku futbol zelaian eskainiko da, bi txandatan. Garilaren 13tik 18ra 2003tik 2005era bitartean jaiotako neska-mutikoen arituko dira, eta garilaren 20tik 25era 2000tik 2002 urtera bitartean jaiotakoak. Talde bakoitzean gehienez ere 30 parte-hartzaile onartuko dira. Gazteak goizeko 9:30etik 14:00etara murgilduko dira futbolearen. Tituludun entrenatzaileek zuzenduko dute campusa, teknika eta praktika uztartuz. Kategoria bakoitzean dagozkion gaiak aztertuko dira, eta entrenamendua bukatzerakoan

igerilekuetara joango dira. Gainera, inguruan irteerak egingo dira.

Triatloi campusa, Altsasuko Zelandi kiroldegian

Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak, Sakana Triatloi Taldearen eta Atabo S.L.-ren laguntzarekin 8 eta 16 urte bitarteko neska-mutilendako triatloi campusa antolatu du udarako. Campusa garilaren 13tik 24ra gauzatuko da, Altsasuko Zelandi kiroldegian, goizeko 11:00etatik 13:00etara.

Sakana Triatloi Taldeko Aitor Mozo eta Urko Berdud izango dira triatloi campuseko begiraleak. Triatloiak atletismoa, igeriketa eta txirrindularitza biltzen ditu, eta aipatu kirolaren teoria eta praktika landuko dute neska-mutikoei, bereziki jokoaren bidez. Gainera, garilaren 18an Sakanako 13. Triatloia ospatuko da Urdiainen, eta campusean trebatzen daudenek bertan aritzeko aukera izango dute.

Izena ematea zabalik

Udako futbol eta triatloi campusetarako izena ematea zabalik dago, Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuan (948 464 866 telefonoa, kirolak@sakana-mank.com posta elektronikoa edo www.sakana-mank.com webgunea). Prezioa: 35 euro partaideko futbol campuserako, eta 40 euro partaideko triatloi campuserako.

Txirrindularitza

Bihar Burunda Txirrindularitza Taldea Trofeoa jokoan Altsasun

Kadeteen lasterketa larunbatean 17:00etan abiatuko da, Altsasutik

Burunda Txirrindularitza Taldeak antolatuta, bihar, larunbatean jokatu da 38. Burunda Trofeoa, kadeteen mailako proba. Lasterketa Nafar Kirol Jolasetarako puntuagarria izango da.

Guztira 51 km izanen dituzte aurrez-aurre txirrindulariek. Altsasutik aterata, Ziordiraino iritsiko dira, handik buelta hartu eta Bakaikuraino iritsiz. Buelta hartuta, atzera ere Ziordira joko dute. Ziordian buelta hartuta, Olaztitik Altamira portua igoko dute eta hura jaitsita Iturmendiraino iritsiko dira, han buelta hartu eta Altsasuko helmugaraino iristeko.

Asier Etxeberria 8.a Lizarran

Lizarrako juniorren lasterketan esprintean Diego Lopez nagusitu zen (2:04:15). Asier Etxeberria 8.a izan zen, denbora berean. Baroja 19.a sartu zen, 1:16ra, eta Jimenez 21.a, denbora berean. Aramendia 24.a sailkatu zen, 1:51ra.

Bestalde, Quesos Albeniz taldeko kadeteak Zumaian lehiatu ziren, Gaztetxoak Sarirako baliagarria zen lasterketan. Ailetz Lasa 20.a izan zen, Josu Etxeberria 39.a, Hodei Zia 62.a, Josu Jaka 63.a eta Ohian Vinagre 72.a.

Rural Kutxako Lastra bigarrena Duranan

Bere taldekide Odei Juango lakuntzara 12.a sailkatu zen

Duranako Trofeo Eusebio Velez lasterketa esprintean erabaki zen. Euskadi Fundazioko Jon Irisarri gailendu zitzaion Rural Kutxa talde sakanadarreko Jonathan Lastrari. Bere taldekide Iker Azkarate 6.a izan zen, 4 segundora, eta talde sakanarrean dabilen Odei Juango lakuntzara 12.a sartu zen, denbora berean. Bestalde, Espainiako Koparako baliagarria den Torredonjimeno Klasikoan Rural Kutxako Victor Etxeberria 8.a izan zen, 1:30ra. Kopan Rural Kutxako Jaime Rosón laugarrenada,

Master Saria David Garcarendako



Iker Zabaleta urdiaindarrak 8.a eta Iraitz Goñi arbizuarra 14.a


Igandean Arbizuko III. Master Saria jokatu zen Arbizon, aldi berean Euskadiko Master Txapelketa zena. Aralar Txirrindularitza Taldeak antolatu zuen. Txirrindulariek goizeko 11:00etan hartu zuten irteera Arbizutik eta 98 km ondoren despeditu zen proba, Lizarragabengoatik, Zarapizubitik, Ergoienatik eta Arakildik barna ibili eta gero.

Helmugara aurretik laukote bat iritsi zen, eta esprint estuan Ciclos Gamen taldeko David Garcia nagusitu zitzaizen (2:31:16) Tirituko Alberto Hierrori, Goernako Jose Antonio Larreari eta Biteriko Arkaitz Arakistaini. 18 segundora bikote bat

sartu zen eta 31 segundora boskote bat. Tartean zegoen Goernako Iker Zabaleta urdiaindarrak, probako lehen sakanadarrak, 8. postuan iritsi zena. Talde bereko Iraitz Goñi arbizuarra 14.a izan zen, 1:22ra. Talde berean Peugeot Etor mobil taldeko Alfredo Amillano sartu zen, 20. postuan. Aldiz, Peugeot Etor mobileko Mikel Sarasola altsasuarra 30.a izan zen, 3:43ra. Ciclos Gameneko Alejandro Maya irurtzundarra 75.a sartu zen, 11:33ra. Guztira 95 txirrindulari sailkatu ziren. Master 30 kategorian David Garcia gailendu zen, master 40an Unai Agirrebeña, master 50ean Iñigo Larrañaga, eta master 60an Luciano Mitxelena.

Japan Cupeko lider segitzen du Urtasunek

Urdiaindarrak hirugarrena sailkatu zen txapelketako laugarren lasterketan



Asteburuan Japan Cupeko laugarren proba jokatu da. Jin Okubok irabazi zuen lasterketa eta Team Ukyoko Pablo Urtasun hirugarrena izan zen. Urdiaindarrak Japan Cupeko lider izaten jarraitzen du.

Duatloia

Duatleta sakanadarrak txukun Azkoitian

Ander Agirrek irabazitako proban Javier Borrega 55.a sailkatu zen

Azkoitiak 16. Azkoitiko Duatloia hartu zuen larunbatean (9,9 km korrikan, 34 km bizikletan eta 4,5 km korrikan). Ander Agirre (1:46:27) eta Lourdes Oartzabal (2:03:06) izan ziren txapelkunak. Sakana Triatloi Taldeko lau duatleta iritsi ziren helmugara, Javier Borrega buru zela. Altsasuarra 55.a izan zen helmugan (1:54:36).

Isidro Asurabarrena 71.a sailkatu zen (1:55:36), Juan Luis Maiza 74.a (1:56:24) eta Juantxo Azurmendi 125.a (2:06:03).

NEREA
ILEAPAINDEGIA

NEREA BAKAIKOA
Ermiñeta kalea 4 - 948 567 331
LAKUNTZA

Zure ezkontzarako loreak enkargatu
...eta paradore batean gaua pasatzeko zozketan parte hartuko duzu

2015 EZKONGAIK

lorea
948 46 74 26 | San Juan 52
669 72 21 12 | 31800 Albeniz
www.floristerialorea.net

ZURE USTEZ, IRITSIKO AL DIRA BEREN KASA BIRZIKLATZERA? EGIZU GOGOETA BIRZIKLATU ZURE TEEHak

Eraman zure tresna zaharra, berria erosten duzun dendara, edo erabil itzazu zure mankomunitateko zerbitzuak: tamaina handikoen bilketa

zerbitzua (Emauseko Trapuketariak) edo garbigune finkoa (Arbizuko zabortegia) eta mugikorra. Galdetu zure mankomunitatean.

*Tresna Elektriko eta Elektronikoen Hondakinak

948 464 867 / www.sakana-mank.com

Mank.

Urdiaingo eliza, eta gehiago

Miguel Angel Sagasetak, Urdiaingo apaizak, *Urdiaingo Eliza* eman dion liburua argitaratu du. Ez da bakarrik elizazari, ordea. "Urdiaingo elizaren inguruan neukan informazioa baliatuta, dokumentazio hori guztia paperera pasa eta liburu batean biltzea izan da nire helburua. Elizaren inguruko datuak jaso ditut, baina erretaulaz edo duela mende batzuk Burunda osatzen zuten herri desagertuen inguruan ere badira aipamenak".

Maialen Huarte Arano

Nondik sortu zitzaizun liburua egitearen ideia?

Urdiaingo apezka naiz eta askotan herritarrek galdetzen didate erretaulan agertzen diren santuak nortzuk ote diren eta zein urtetakoak ote diren. Datu horiek bantuen, urteetan bildu izan baititut elizetan eurretan bilduta, artzapezpikuan edo Nafarroako Artxi-boan eskuratutako informazioaren bidez. Datu interesgarri horiek biltzea erabaki nuen eta aprobeztatu aurretik egin nuen dokumentazio lana liburua osatzeko.

Interesa sortu du herrian?

Urdiaindarrek izanzen dute interesik handiena liburuan, noski. Euren herriko eraikina da protagonista eta jakin mina denok izaten dugu ezagutzeko noiz eta nork sortu dituen ingurukoak. Aurkezpena jendetza hurbildu zen nik esateko nuena entzuteratzen. Irakurtzen hasiak direla ere badakit.

Zein berezitasun du bada, Urdiaingo elizak?

Eliza denak dira bereziak berez. Urdiaingoaren inguruan dokumentazioa bada aunitz. Bertan argi geratzen dena da ez dela garai bakar batean eraikitakoa izan. Hiru zatitan gutxienez egindakoa da. Hasteko, gaur egungo eliza baino txikiagoa zen bat eraiki zuten ber-



tan. Pareta handia eraikitzen hasi ziren gero, 1580rako amaitua izan zena. Baina bukatu gabe utzi zuten eliza, garai hartako herriko abadea Miguel de Iturmendi hil egin zelako, baita arkitektoa bera ere. Dena dela, bukatu gabe zegoelarik -koruaren alderdia bukatu gabe, meza ematen zuten oraingo elizaren barranean zegoen eliza zaharrean. Beste garai batean amaitu zuten osorik. Eliza txiki zaharra desegin eta bigarren zatiarekin bukatu zuten. Sei urteko epean amaitzekoa zen, baina, luzatu ere egin zen. Hirugarren batek despiditu zuen barnealdeko partea. Kanpai dorrea ere ez da une berean eraikia. Kuriosidade gisa, dorreak duen eskailera aipatuko nuke. Bereziki polita da, karakola formakoa baina barandallarik gabea.

Urte luzez aritu ziren, beraz, eliza eraikitzen.

Bai. Liburuaren zati bat elizari buruzko obra handiezaritzen naiz, eraikinaren inguruan. Bestelako lanak ere badira, gaurko sakristia eta portxeak, adibidez. 1805ekoak izanzen dira gutxi gora behera horiek. Guztiak ordaintzen ziren herritarrek jartzen zuten diruarekin. XIX. mendean ia ez zen lanik egin, txikiak zirenak bakarrik, mantenimendurako bereziki.

Ederra da elizako erretaula diozu, zer dela eta?

Egoera onean mantendutako lana da erretaularena. Ederra da, bai. 1624tik 1630era egin zuen Arbizuko Miguel de Beruzurginek. Altsasuko eta Murginduetakoa ere berak eginak dira, baita Etxarriko eliza atea ere. Erretaulako santu bakoi-tza ez zuten berak zizelatu. Caparro-soko Juan de Vascardo da, Iruñeko Katedraleko gurutze baten egilea ere badena. Erretaularen pieza bakoi-

POPIÑE EMAROCK-EKO IRUDIA: Emarock Eguna ospatuko da bihar Aretxabaletan, 11:00etatik aurrera. Ospakizuneko irudia Olatz Aldasoro diseinatzaile etxarriarren Popiñe da.

tzaren argazkia eta dokumentazioa bildu ditut liburuan.

Elizetara joaten ziren urdiaindarrak garai batean, asko. Erromeria gisakoak antolatzen zituzten inguruko elizetara joateko. Maiz egiten zuten. Gaur egun desagertuak dauden baina oraindik badira ermitetara egiten zuten bidaia. Esaterako, lehorte urteetan, ura eskatzera joan ohi ziren herritarrek erromerian.

Zer dela eta horrenbeste eliza Urdiaingo inguruan?

Burunda garai batean herri askoz ere gehiagok osatzen zuten, eta horren adibide dira gaur egun ermitatutako ditugunak, lehen elizak ziren, herri desagertu horietako elizak alegia. Elkarren artean adostasunetara iristen ziren herritarrek: apezka nor izanzen zen erabakitzeke, obrak nork egingen zituen edo halakoak herritarren artean erabakitzen zuten. Historian oinarritu naiz, jasotako dokumentuetatik.

Datu asko dago, nahiz eta beste asko galduak diren.

Sakanako eliza guztietan dago oso baliagarria izan daitekeen informazioa. Herriko kontuak, eraikinen egileena, egin zuten garaikoa, orda indutakoarena... Nafarroako Artxi-boan ere jaso daiteke informazioa.

Liburuaren sarreran Burundako herri desagertuez aritu zara.

35 herri izen jaso ditut. Gehienak XIV. mendean galdu ziren. Orain, izen asko galtzen ari dira, aztar-na asko galdu dira eta ermita asko ere bai. Laburpen gisara bildu dut, galez daitezkeen eta herritarrek jakin dezaten zenbat herri existitu izan ziren Burundan.

Bi hizkuntzatan idatzi duzu liburua.

300 orrialde dira guztira, baina bai, bi ataletan banatua. Euskarazkoarekin hasi nintzen, baina bitara egin dut, kanpoko jende asko etorri delako Urdiaingera bizitzera eta askok ez daki euskara. Horiek ere interesa izan dezaketelakoan aritu naiz baita gaztelaniaz ere.

Hiru altsasuar Nafarroako Eskolarteko Bertsolari Txapelketan

Gaur, 19:00etan, Iruñeko Zaldiko Maldiko elkartearen

Nafarroako Eskolarteko Bertsolari Txapelketaren 29. edizioan hamar bertsolari gazte parte hartuko dute. Guztiak ere 14 eta 18 urte artean dituzte. Haien artean daude Idoia Granizo, Ekain Alegre eta Aitziber Grados altsasuarrak. Aina-ri eregi aurkezleak gidatuta bertsolariek lehen fasean honako lana egin beharko dute: hasierako agurra; gai orokorrarekin bertso bat osatu; lau oinak emanda bertso bat osatu eta hitza emanda bertso bat osatu.

Bigarren fasera lau bertsolari pasako dira eta haien egitekoa hauxe izanzen da: binaka, gaia emanda, bina bertso zortziko txikian; banaka, lehen puntua emanda bertso bat zortziko txikian eta binaka, gaia emanda, hiruna bertso koplatan. Lehen bi postuak eskuratzen dituztenek Euskal Herriko Eskolarteko Bertsolari Txapelketako finalerako sailkatzea lortuko dute. Euskal Herriko finala eta festa garagarriaren 27an izanzen da, Orion.

15 ilustratzaile txiki

Guztiak ere album ilustratu bat sortzeko tailerrean elkartuko dira gaur, 18:00etatik 20:00etara, Ziordiko liburutegian. 6 eta 10 urte bitarteko haurrek Yolanda Arrieta idazlearekin eta Aitziber Alonso ilustratzailearekin album ilustratua egiten ikasiko dute. Mank-eko Euskara Zerbitzuak haurrak albumetara gerturatzeke asmoz antolatu du lantegia, Etxepare sariaren egitasmoaren barruan.

BUJANDA OGI BERRI

GAUR, 19:00ETAN INAUGURAZIOA ZUEN ZAIN EGONGO GARAI ZATOZTE!

Kale Nagusia 40, behea · Olazti

GANUZA ANAIK
www.cocinasganuza.com

Sukaldeko altzari lantegiak
Bainu gelako altzariak | Horma armairuak | Etxetresna elektrikoak

c.ganuza@cocinasganuza.com

Zumurdineta industrialdea | 948 460 203 | Faxa: 948 460 673 | Etxarri Aranzat

Kabareteko istorio bat

Larunbatean, 19:30ean eta 22:00etan
Altsasuko Iortia kultur gunean

Altsasuko Iortia-ko antzerki tailerrak *No* antzezlanaren aurkeztuko du bihar. Kabareteko istorio bat

ret batean kokatutako antzezlanaren sortu dute ilbeltzetik hona Iortia-ko antzerki tailerreko kideek. Hala ere, pertsonaiak lastailetik sortzen aritu dira, Birjinia Albiraren esanetara.



Ama-semeak komedian nahaspilatua

Igandean, 20:00etan, Irurtzungo kultur etxean

Bizi gaituen garaiari buruzko komedia adimentsu bat da *El atribulado voto de la señora María* antzezlanaren. La Nave konpainiaren Seña María (Marta Juaniz) eta haren seme Camiloren (Miguel Munarriz) berri emanen digu. Seña Mariari hanke, memoriak, diabetesak edo prostatak ere huts egiten diote. Mariaren amorratioa ongi dabil. Amorrutik horrek nabartzen du inguruan ikusten duen guztia. Camilo bere semeak ere pizten dio bizitzarekiko duen sumindura itzel hori.

Semea alderdi handieneko parlamentaria da eta Parlamentuko hizlarien tribunitik lehen aldiz mintzatzeko zorian dago. Baina haren ama seme ezdeus eta goranahiaz erabat desilusionaturik dago, Camilo kargu-gose hutsa baita. Buruko minaren kontrako "pilulatxo" berriek zertxobait desinhibiturik, amak istilu ederra sortuko du.

Errezital erotikoa

Ostiralean, 22:30ean, Olatzagutiko kultur etxean

Bi bikote. Auzokideak. Aktoreak batzuk. Konpromiso bat ezin bete eta auzokideei mesedea eskatuko diete. Erlijio sinesmen handiko bikoteak baiezkoa ematen du. Eta poesia erotikoko errezitala eman behar izanen dute. Proposamen dibertigarri hori jasotzen da La Nave teatroren *Del amor y otras cochinas* antzezlanaren. Marta Juaniz eta Migel Munarriz aktoreek hainbat garaietako poesia erotikoko testuak interpretatuko dituzte: gau arabiarrekin hasi, Erdi Aro ilun ingelesarekin segi, Greziako filosofoen obretatik pasa eta herri literatura hartuko dituenak.

Mikro-ipuinari aipamena

Euskara Kultur Elkargoak antolatuen IX. Mikro-Ipuin lehiaketara Nafarroa osoko 1.200 lan aurkeztu dira. Epaimahaiak Dereduko Lehen Hezkuntzan aurkeztutako lanen kalitatea nabarmendu du eta ohorezko hiru aipamen banatu ditu. Haietako bat Etxarri Aranzoko Andra Mari Ikastolako Naroa Martinez Artiedarendako izan da, *Zizen lekua* ipuinarengatik.

Zein da zein

Amelia: Kabareteko izar izanda-koak, kabaret propioa eta langileak ditu. Oso emakume zorrotza, berekoia. Ia-ia dena berdin zaio.

Marta: Adinagatik kabareteko bigarrena da. Ameliarekin aspalditik daramalanean. Bizitzan asko sufritutakoa da. Amelia ez bezala, lan-kideak zaintzen saiatzen da. Ona eta hurbila da.

Erkuden: Neska gazte-gaztea da, korista. Iritsi berria. Bizitzak kabaretera eraman du eta oso gustura dago. Dena ongi ateratzen saiatzen da. Pozik bizi da, aurretik kalean bizi zelako. Buru argia, nahi dena badaki.

Claudia: Erkudenekin parera doaz. Gaztea da. Kaletik heldu da, baina bere bizitza Erkudene bair

no gogorragoa izan da. Pixka bat serioagoa eta zentzudunagoa da. Erkudenekin beti borrokan, biak ere euren tokia bilatzen ari baitira. Kabaretean duen erreferentzia beti lehena da. Baina arazok ongi konpontzeko besteekin elkartzen da.

Santi: Kabareteko izarra desagertzean zurren bera izanenda izar berria. Oso alai da. Naturala. Gaztea. Bere ingurua kontrolatzen du eta dirudien baina azkarragoa da. Ez erortzeko zer egin behar duen badaki.

Nahikari: Kabareteko super-izarrara. Bere bizitzan ez du gehiegi sufritu, baina ez zuen behar zuen amodioa jaso haurtzaroan. Soilik lana inporta zaiola dirudi. Beti Ameliaren pean dago. Antzezlanen sortzen den gatazka bere inguruan gertatzen da.

Eder: Kabareteko langilea, eguneroko lana egiten duena da. Bere familia du, baina dirua behar zenez haiek utzi eta lanera alde egin behar izan du. Haiendako behar du dirua. Bihotz onekoa.

Juli: Nahi gabe iristen da kabaretera. Ez da piano-jolea, baina jotzen du. Ez behar bategatik Kabareteko piano parean bukatzen du. Nahi gabe eta aurrera egin behar du. Aspaldi jo gabea da.

Elur: Hiriko alkatearen emaztea da. Amodioz gabeko ezkontzan bakoitzak nahi duena egiteko. Kabaretean ikusitako zerbait beretako nahi du. Eta boterea duenez, xantaia egitea ez du baztertuko. Gaztetan Ameliaren lagun mina zen.

Zapa: Perkusioa jotzen duen gizona. Ez du ia hitz egiten, baina dena kontrolatzen du.

OLAZTIKO Gazte Asanbladak 20 URTE

1995-2015

TXIKITATIK IZANDAKO XMETSA URTEETAN EGINDAKO LANAREKIN ERREALITATE BIHURTU ZAIO GAZTERIARI

HESIAN GOZATEGI OIHAN VEGA BEHIN BETIKO ARKADA SOCIAL

TALDE ETA TALDE TARTEETAN LUDOVAINA TALDEAK BERE GALIZIAR MUSIKA TRADIZIONALAREKIN ALAITUKO GAITU

MAISUENEX GURE ETXEX HERRIAREN ALTXORRA HIRE KONPROMEZU LAN TX BORROKAZ URTEMUGAK BXDOXZ

MAIATZAK 9 LARUNBATA

MAISUENEA GAZTETXEAREN AURREKALDEAN

LAGUNTZA: AURRETIK 10€ BERTAN 15€

Bokatak egongo dira

ATEEN IREKIERA

18:30

TAN

SALTOKIAK: OLAZTI (CLINKER, ERBURUA), ALTSASU (BILTOKI), ETXARRI (LEKUONA), ARBIZU (KARRIKA), LAKUNTZA (SORGIÑAK), AGURAIN (HERRIKO), IRUÑEA (HERRIKO), BEASAIN (ARRANO).

GORA MAIATZAREN LEHENAI!

M1 LANGILEOK

BORROKAN Euskal Herria aldaketa bidean

12:00 ALTSASU FORU PLAZA

HITZALDIA

NUESTRO MAYO ROJO

Langile mugimenduaren historiaren hurbilketa bat (1789-1990)

PATXI ABASOLO

IORTIA kultur gunea

29

19:00

LAB

G

asteko >> : eguraldia

ostirala	larunbata	igandea	astelehena	asteartea	asteazkena	osteguna
euria: 10%	euria: 30%	euria: 13%	euria: 83%	euria: 30%	euria: 45%	euria: 65%
Min: 9 Max: 21	Min: 10 Max: 19	Min: 10 Max: 16	Min: 7 Max: 10	Min: 4 Max: 12	Min: 6 Max: 12	Min: 7 Max: 11

: temperatura >>

	Max. °C	Min. °C	euria l/m ²
Irurtzun	23.5	4.5	17.8
Etxarri A.	21.8	1.7	20.7
Altsasu	21	1	21.5
Aralar	13.7	-0.7	20.3
Urbasa	17.9	-0.5	9.7

: ilargiaren aldia >>

ilgora	ilbete	ilbehera	ilberri
26	4	11	18

EGOKI
VENTANAS PVC LEIHOAK

www.ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

egoki@ventanasegoki.com

Acrylcolor
SISTEMA BERRIA

KOLOREA GEHIAGO ETA HOBE

Apiribileko bazkide zozketa

APIRIBILEKO SARIAK:

1. SARIA: Ekainberri museorako 2 sarrera, Gaztezulo aldizkariaren 3 hilabeteko harpidetza, Lacturale lotea, Magna Xotarako sarrerak, Artazako kanpinerako deskontu balea eta Irrien lagunak aldizkaria.

2., 3. ETA 4. SARIA: Gaztezulo aldizkariaren 3 hilabeteko harpidetza, Lacturale lotea, Magna Xotarako sarrerak, Artazako kanpinerako deskontu balea eta Irrien lagunak aldizkaria.

>> 11 galdera

Jone, Gorka eta Iñaki

Unamuno Pentsuak agrodenda

Testua: Alfredo Alvaro eta Mainer Betelu



ikaslearen agendak

& irakaslearen koadernoak

GURE BALIO ERANTSIK:

Agenda hezigarria:

Esaera zahar, ilustrazio eta eduki didaktikoak

Orri-markatzailea | Ikastetxeari aholkularitza

diseinua & inprimatzea

948 562 107 argi@guaixe.net

1. Unamuno agrodenda erakusteko ate irekiak larunbatean.
Jendea denda berria ikustera etorri zen, eguraldia ona zegoen... oso gustura.

2. Unamunok historia handia du. Aitonarekin hasi zen dena, ezta?
Enpresa aitona Epifaniok sortu zuen. Altsasura bizitzera etorri zen 50. hamarkadan. Kamioi txiki batekin zerealak erosten hasi zen, gero saltzeko, eta horretaz aparte garraioak egiten hasi zen. Ondoren Altsasuko pilotaleku pareko bajera batean errota txiki bat jarri zuen eta pentsuak egiten hasi zen. Hurrengo pausua enpresa Olaztikobiltegi batera pasatzea izan zen. Han semeak gehitu ziren negozioira, 70.-80. hamarkadatan. Hurrengo pausua Altsasuko Ondarria industrialdera pasatzea izan zen, egun gauden tokira. 1988. urtean egin zen lehenengopabiloia, eta bospasei urte beranduago bigarrena. Eta hurrengo pausua izan zen denda zabaltzea. Gero ilobak sartu ginen lanean. Orainazkenekopausua eman dugu: mustu berri dugun Unamuno agrodenda zabaltzea.

3. Urte luze hauetan pentsuetan aldaketa handia emango zen, ez?
Lehen errota txiki batean aitona zebilen bertako garia, garagarra, oloa eta babak nahasten eta listo. Orditik eboluzioa ikaragarria izan da. Produktu berriak sortu dira, eta batez ere granuladora jarri genuenean, pentsua pelletetan ateratzeko. Izan ere, lixeriketari askoz ere gehiago laguntzen dio pentsuak pellet moduan.
Egun denetariko pentsuak ditugu, animalia guztiendako. Azkeneko pentsuak karakteren-

dako egin ditugu, pentsa. Duela urte eta erdi pentsuen alorrean erabaki garrantzitsua hartu genuen: gure produktu guztiak transgenikorik gabekoak izatea. Guk beti kalitatearen aldeko apustua egiten dugu; hori da Unamuno markaren baitan dagoen gauza bat. Eta ikusten genuen transgenikoak erabiltzeari uko egin behar geniola, kalitatea eta elikadura segurtasuna mantentzeko.

4. Zergatik zabaldu duzue agrodenda berria?
Aurreko denda oso txikia geratu zitzaigulako. Berrian espazio zabala dago produktu guztiak ongi erakusteko eta zerbitzu hobea eman nahi izan dugu. Hainbat produktu berri sartu ditugu, zerbitzu osoa eman nahi dugulako.

5. Dendari erreparatuta, animalientako pentsuak, jantokiak eta beste dituzue.
Gero eta gehiago saltzen dira txakurrak eta katuendako pentsuak. Animalientako kaiolak, jantokiak, ura edatekoak, animalientako kateak, lepokoak eta behar duten guztia badugu ere.

6. Baita burdindegi sekzioa eta baratza jartzeko behar den guztia.
Lehendik itxiturak saltzen genituen, baina burdindegiaren alorra gehiago zabaldu dugu eta baratzetarako erremintak eta makineria gehitu dugu. Errotabatoarea, desbrozadora, belarra mozteko makinak, motozerrak... baita ureztatze behar den guztia. Hori lotuta, baratzean landatzeko haziak, produktu fitosanitarioak eta zoosanitarioak ditugu eta baratzean landatzeko landareak saltzen hasi

gara, baita balkoietan eta etxeetan jartzeko ornamentuzko landareak ere, loreontziekin batera. Aspaldi genbiltzan sekzio hau jarri nahian.

7. Berrikuntza moduan produktu freskoak eta kontserbak dituzue.
Gure pentsu erosleei euren produktuak gurean saltzeko tokia eskaini nahi izan diegu. Kalitatezko etxeko produktuak dira, ez industrialak, bertakoak. Kontserbak, ardoa, lekaleak eta ekoizle ezberdinen Idiazabal gazta saltzeko gunea jarri dugu. Horrekin batera arrautzak, urrak, intxaurrak, olioak... denetarik. Hari lotuta, etxeko tresneria dugu: lapikoak, zarzaginak, suak, tomateak eta beste enbotatzeko behar den tresneria...

8. Beste berrikuntza bat: arropa.
Sekzio berri bat jarri dugu, lan arropa eta oinetakoak, Dickies etxekoak. Jendeak lan egiteko arropa ona eskatzen zigen.

9. Pellet-a ere eskaintzen duzue.
Azkenaldian erregai hau asko indartzen ari da. Kalitate handiko pellet-aren alde egin dugu apustua.

10. Eskaintza handi honek erosle gehiago erakarriko ditu.
Hori da nahi duguna. Gure denda ez da soilik nekazariendako, mundu horretatik kanpoko jendearendako baita ere. 8:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 19:00etara gaude zabalik. Larunbatetan, aldiz, 9:00etatik 14:00etara.

11. Etorkizun handia izan dezazuela. Ilobek kontu ditzatela zuenak!
Hori espero dugu, urtetan jarrai dezala. Gu bisitatzeragonebidatzen zaituztegu.